

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Frontenis edo pala motza, zintzo jokatu edo etxekalte **RAMON SOLA > 11**

GARI: «Nik sentitzen dut nire bizitza beti irteera marran dagoela, beti zerotik hasten naizela» **> 22**

2023eko ekainaren 10a | XVII. urtea • 828. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

KIROLA, EUSKARAREN ARNASGUNE

KUKULAI SIASIALDIKO TOPAGUNEAK «ENTRENATZEN» IZENEO PROIEKTUA JARRI DU MARTXAN DEUSTUALDEKO HAINBAT KIROL ELKARTETAN. ERRONKA: EUSKARAREN GIHARRA ERE INDARTZEA. **> 12** Aritz LOIOLA | FOKU





Kolonbiako oihanean galdutako lau hurren bila jarraitzen dute 04

Ikusmira: Ura ere gerra tresna bilakatu da Ukrainan 07

Aztarnategi arkeologikoak arriskuan ipini ditu aldaketa klimatikoak 08

«Entrenatzen» proiektua, kirolean euskararen giharra indartzeko 12

Ostempo Nuna, 500 urte barru gure mezua entzun dezaten 17

Gari: «Musika familiarekin eta gizartearekin apurtzeko erantzun bat izan zen niretzat» 22

Pantaila Txikian: «True crime»-tik fikziora, inspirazio agorrezina 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Konfrontazioa gora eta axolagabetasuna nagusi
- 10 **Oier Gorosabel:** Kapsulitis itsaskorra
- 11 **Ramon Sola:** Frontenis edo pala motza, zintzo jokatu edo etxekalte
- 16 **EXPRAI**
- 20 **Gorka Etxebarria Dueñas:** Errespetagarritasuna eskuz aldatzen ari da
- 21 **Mijo Lizaraburu:** Feminista arrazisten kritikak: ordaindutako lanetik haratago
- 26 **Joxean Agirre:** Lehen «round»-a
- 26 **Asier Aiestaran:** Alkoholaz hausnarketa bat
- 30 **Arantxa Urbe:** Ebaluazioa ikasteko aukera balitz



{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

Konfrontazioa gora eta axolagabetasuna nagusi

Mundu mailako konfrontazioak gora egiten jarraitzen du, baina ez da antzematen eztabaida publikoan. Maiatzaren hasieran droneekin eraso zioten Kremli. Errusiak esan zuen Ukrainako erabakiguneei eraso egingo ziela, non Ukrainako eta NATOko militarrek elkarrekin lan egiten duten. Badirudi, ondorengo astean, Errusiako misil batek Valerii Zaluzhnyi Ukrainako Indar Armatuaren komandantea harrapatu zuela, ez baita berriro jendaurrean agertu. Kirill Budanov, inteligentzia militarreko buruak, ordezkatu zuen aurpegi publiko gisa, Errusiako armadak inteligentzia militarren Kieveko egoitzari eraso zion arte. Ziurrenik, eraso horietan NATOko militarren bajak ere gertatu dira.

Ondorengo astean, Jmelnitski hirian armategi bat suntsitu zuen Errusiako misil batek. Antza denez, Gobernu britainiarrak emandako uranio pobretua zuen munizioa bertan zegoen, eta haren suntsipenak erradioaktibitatea areagotzea eragin zuen, Ukrainako eta Poloniako sare sozialetako hainbat kontuk zabaldu zuten. Erradioaktibitatea monitorizatzen duen EBko

webgunea (<https://labur.eus/zMpyQ>), hainbat egunetan eskegita egon ondoren, funtzionatzen hasi denean, grafikoan erradiazio-gailur bat agertu da 18an, ziurrenik arma biltegiak eztanda egin zuelako. Gertara horri buruzko informazio ofizialik ez da egon.

Jmelnitski lehertzen ari zen egun berean, zenbait misilek bi hegazkin eta bi helikoptero bota zituzten Errusian. Moskuko iturri ofizialek esan zuten Patriot bateria batetik eraitsi zituztela. Hiru egun geroago, errusiar misilek Kieveko erdialdean suntsitu zuten iparramerikarrek gidatutako bateria horietako bat. Gero eta argiago dago Washingtonen eskaladan jarraitzen duela, informazioa eta armamentua emateaz gain, zu-

zenez parte hartu duela indar errusiarren aurkako erasoetan, eta horrek eraso zuzenak ekarri dizkiela.

Nazioarteko tentsioaren gorakadaren zeharkako zantzuak badaude. Maiatzaren 31n, Xi Jinping Segurtasun Nazionalen Batzordearekin elkartu zen. Bertan funtzionarioei eskatu zien prest egon zitezela «agertoki okerrenak eta muturrekoak» konpontzeko, «haize bortitzei, olatuei eta are ekaitz arriskutsuei» aurre egiteko. Ez dira, ez, hitz lasaigarriak.

Zentzu berean, Recep Tayyip Erdogan hautatu berriak Hakan Fidan Turkiako inteligentzia burua izendatu zuen Kanpo Arazoetako ministro. Norbaitek espioen burua izendatzen badu ministerio bateko arduradun gisa, logikoena da pentsatzea arazoak espero dituela. Nazioarteko esparrua da puntu beroena.

AEBek utzi egin diote kontinente arteko misil balistikoen jaurtiketei buruzko jakinarazpenak helarazteari. Erabaki hori oso arriskutsua da, edozein jaurtiketa eraso bezala interpreta baitaiteke

Postura igotzen, ekainaren 1az geroztik, AEBek utzi egin diote kontinente arteko misil balistikoen jaurtiketei buruzko jakinarazpenak eta telemetria datuak helarazteari. Erabaki hori oso arriskutsua da, edozein jaurtiketa eraso bezala interpreta baitaiteke, erreakzio kate bat martxan jar dezakeena.

Tentsioak metatzen diren bitartean, hala ere, eztabaida publikoan ez da kezka berezirik sumatzen. Beharbada iritzi kritiko guztiak estaltzearen ondorioz, jendeak paso egin du. Edozein kasutan, ordea, egoerak burura dakar Martir Luter Kingen esaldia: kezkarriena ez da gaiztoen gaiztakeria, zintzoen axolagabetasuna baizik. •

KOLONBIA, HARI BATEAN

Hegazkin istriputik hilabete pasatu da eta lau haurrek oihanean galduta segitzen dute

Maiatzaren 1ean Cessna 206 hegaz-

kin bat desagertu egin zen Kolonbiako hegoaldean, Amazoniaren gainetik hegan ari zela. Zazpi bidaiari garraiatzen ari zen, eta egunetan aritu ziren haren bila, azkenean istripua izan zuela jakin zuten arte. Hegazkina topatu zutenean, aste-bete geroago, hiru helduak hilda aurkitu zituzten, baina lau haurren berririk ez zegoen. Hilabete pasatu ostean haurren gorpurik aurkitu gabe jarraitzen dute; beraz, uste dute bizirik egon daitezkeela. Gainera, aste luze hauetan zehar, hipotesi hori babesten duten pistak aurkitu dituzte.

Hamaika hilabete zituen Cristin Neriman Ranoque Mucutuy (maiatzaren 26an urtebete egin zuen), 4 urteko Tien Noriel Ranoque Mucutuy, 9 urteko Soleiny Mucutuy eta 13 urteko Lesly Mucutuy dira desagertuta dauden haurrak –uitoto etniakoak–, herrialde osoan itxaropenaren pizgarri direnak. Familiaren lehen bidaiaren honako hau, eta aitari bisita egitera zihoazen, Araraquararik San Jose del Guaviarera. Hegazkinak aurreko aldearekin jo zuen lurraren kontra, eta uste dute txikiak bizirik egon daitezkeela atzeko partean zihoazelako.

Palma Rosa nekazaritza-etxalde inguruan, Solano (Caqueta) herrian, agertu zen hegazkina, hiru gorpurekin, eta hor inguruan hasi ziren indar militarrek txikiak bila. Hasieran 100 kide ziren, hiru txakurrez lagundurik. Lanbroak eta

JENDARTEA / Nagore BELASTEGI MARTIN

Duela hilabete eta astebete, hegazkin batek istripua izan zuen Kolonbiako oihanean, zazpi bidaiari zeramatzala. Hiru helduen gorpuak berreskuratu ziren arren, lau haurrenak ez dituzte oraindik aurkitu, eta bilaketa bideratzen ari diren taldeek uste dute bizirik egon daitezkeela, oinatzak aurkitu dituztelako.

auriak ez zioten bilaketari mesederik egiten.

Handik bi astera makilez eta adarrez egindako babesleku bat aurkitu zuten, baita gurai-ze batzuk eta ilea biltzeko gomak ere, fruta zati batzuekin batera. Txakurretako batek biberoi bat ere aurkitu zuen. Azterna horiek ikusirik, adingabeak bizirik zeuden susmoa indartu egin zen, eta ez hori bakarrik, bizirik irauteko gaitasuna frogatzen ari zirela ere bai. Hori dela eta, bilatze lanak indartu egin ziren, eta erreka baten alboan haur batena izan zitekeen oinatza ere topatu zuten.

Aurkikuntzen ostean, eta gehiegizko itxaropenaren erruz agian, Kolonbiako Familien Ongizaterako Institutuak (ICBF) haurrak onik aurkitu zituztela baieztatu zuen, eta Kolonbiako presidentek albiste Twitter bidez zabaldu zuen. Hala ere, ondorengo egunetan txioa ezabatu zuen eta, indar militarrek ICBFk esandakoa baieztatzea lortu ezinik, bilaketarekin jarraitzen zutela onartu behar izan zuen.

Zurumuruak familiei min egin zien, eta haiek errespetua eskatu zuten eta informazio faltsu gehiagorik ez zabaltzeko. «Ongizate fisiko eta emozionala ez da jolasa», adierazi zuten. «Hedabideen partetik jasaten ari garen jazarpena,

adierazpenak lortzeko, gure eskubideak urratzeaz gain, gure mina areagotzen du», azpimarratu zuten.

Era berean, eragileei eskatu zieten hegazkinaren istripuaren arrazoiak iker zitzaten, kontu hori, behintzat, argitzeko.

AMONAREN MEZUAK

Maiatzaren 18an atera zituzten helduen gorpuak istripua izan zuen hegazkinetik. Hildakoak Hernando Murcia Morales pilotua, Magdalena Mucutuy Valencia galdutako haurren ama eta Herman Mendoza Hernandez ziren. Azkenekoa Kolonbiako Amazoniako Herrien Erakunde Nazionalako (OPIAC) lider uitotoa zen, «bizitzarekin, kulturarekin, alaitasunarekin eta maitasunarekin» konpromisoa zuen pertsona bat, «desberdintasunak errespetuz jorratuz, herri indigenen

Oinatzak, erabilitako fardelak, biberioia eta ilea biltzeko gomak dira oihanean aurkitutako pistetako batzuk, eta horiek itxaropena ematen dute

Militarrek uste dute oihanak bizitzeko behar den guztia eskaintzen duela, «janaria, ura, babeslekuak eraikitzeko aukera...», eta haurrek horiek aprobeztatzen badakitela

Istripua izan zuen hegazkina, topatu zuten lekuan. Uste dute haurrak atzeko aldean zihoazela eta horregatik daudela bizirik. ARMADA KOLONBIARRA | AFP



arteko senidetasuna babesten zuena».

Ordura arte 100 pertsona ari ziren lanean, eta beste 50 gehitu zitzaizkien istripuaren osteko hirugarren astea betetzear zegoela. Haurren aita eta ingurua ezagutzen duten indigena taldeak ere batu ziren bilaketara. Horrez gain, hiru helikoptero erabiltzen hasi ziren, 1.500 metro hartzeko gaitasuna duen bozgorailu bana daramatenak, haurren amonak uitoto hizkuntzan grabatutako mezuak zabaltzeko. «Lesly, mesedez, zuen amona Fatima naiz. Geldirik egon behar duzue Armada zuen bila da bilalako. Geldirik egotea eskertuko nizuke. Mikrofonoak



entzuten badituzu, hor bertan gelditu zaitetzte, zuek aurkitu eta etxera bueltan ekartzeko», zioen biloba zaharrenari zuzendutako mezuak.

Amonaren mezua gutxi baltitz bezala, arrosa kolore bizia zuten paper informatiboak ere bota zituzten oihanean, haurrek aurkituz gero, zer egin jakin zezaten: «Zuen bila gabiltza. Ez mugitu gehiago, erreka batetik gertu egon. Zarata aterra. Egin kea. Salbatu egingo zaituztegu. Gertu gaude. Amona Fatima eta zuen familiak zuen bila dabilta», zioen mezuak, espainolez eta uitoto hizkuntzan idatziak.

Hegazkinak istripua izan zuen lekutik hiru kilometrora FARCen kanpamentu hutsa

aurkitu zuten, baina txikiak horiekin egotea berehala baztertu zuten. «Ia ezinezkoa da bertan egotea operazio humanitario batean ari garelako lanean, bizitzak salbatzen», esan zuen Pedro Sanchez militarren buruzagiak.

Sanchezek agerraldi hura aprobetxatu zuen esateko pista berririk ez zutela aurkitu, baina oihanak «bizitzeko behar den guztia» eskaintzen duela: «janaria, ura, babeslekuak eraikitzeko aukera...». Dena dela, txikiei laguntzeko asmoz, larrialdiko ehun kit inguru barreiatu zituzten inguruan. Ura, gazura, janaria eta pizgailuak sartu zituzten haietan. Hala eta guztiz ere, ez dute ahazten haurrak indigenak

dirrela eta badakitela oihanean nola murgildu.

Era berean, haurrak aurkitu arte bilaketekin jarraituko zutela adierazi zuen, eta itxaropena ez zutela galduko. Oihaneko baldintzek –euria eta animalia basatiak barne– bila tze lanak zaildu ditzakete, eta horregatik «zentimetro bakoitza» zehatz-mehatz behatuko zutela gaineratu zuen.

OIHANAREN BABESA

Maiatzaren 22an indigena talde handiago batek bat egin zuen bilaketa taldearekin. «Ama Lurra gure zain dago, guk harekin dugun harremanarengatik; guk beti eskatzen diogu baimena», esan zuen bere sinismenei helduta Mi-

Goian, oihanean zehar utzi zituzten laguntzeko sortak, eta militarrek, haurren bila.
ARMADA KOLONBIARRA | AFP

guel Romario murui etniako kideak. Berarekin batera siona, nukak eta coreguaje etnietako kideak ere baziren, eta elkarrekin oihanaren bihotzera sartu ziren adin txikikoen bila.

Indigenek, haurren amonak barne, uste dute oihanak harrapatuta dituela, istripuaren ostean trauma bat jasan zutelako eta haien espirituaren parte bat gorputzetik atera zitzaielako. «Horregatik jarraitzen dute oinez, ez dira gelditzen, kontzientzia galdua dutelako», azaldu zuen Romariok. Hori dela eta, alde egingako espirituari eskatu zioten haurrengana itzultzeko, kontzientzia berreskura dezaten.

Indigenek baimena eskatu zioten oihanari bilaketa hasi



aurretik, eta oihanak erantzun egin zuen. Izan ere, handik bi egunera nukak etniako kide batzuek pista berriak aurkitu zituzten: erabilitako fardelak, haur baten kirol zapatilak, telefono mugikorreko osagarri bat, biberoi baten tapa eta toalla bat, hegazkina erori zen lekutik kilometro erdira.

«ITXAROPEN OPERAZIOA»

Manuel Ranoquek, haurren aitak, hitza hartu zuen azken aurkikuntzen ostean, itxaropenez betea. «Jendeari eskatu nahi diot pazientzia eta fede handia izateko. Laster haurrak onik aurkituko ditugu eta oihan honetatik aterako gara», esan zuen konfiantzaz betea. Era berean, onartu zuen bera ez zegoela ondo, «kolpe gogorra» izan delako, baina itxaropentsu agertu zen: «Nire seme-alabekin berriro elkartuko naiz, fedea dut. Oso motibatua nago eta badakit laster lortuko dugula».

Bilaketari buruz esan zuen zaila izaten ari zela oihaneko klima dela eta, oso hezea delako. Hala ere, adierazi zuen «zailena» hegazkina aurkitzea izan zela, ordura arte ez zekitelako bidaiariren bat bizirik zegoen edo ez; hasieran ezin

zuen sinetsi haurrak onik zuedela, hegazkina nola zegoen ikusita. Ordurako bilatze lanek 'Itxaropen Operazioa' izena zuten.

Maiatzaren 25ean Nazio Batuen Erakundeak ere bere baliabideak eskaini zituen, eta beste helikoptero bat martxan jarri zuen. Era berean, informazioa jasotzeko telefono linea bat zabaldu zen, norbaitek informazioa izanez gero, helarazi ahal izateko.

Bost egun geroago teknika berriak erabiltzen hasi ziren: idatzitako zein bozgorailu bidezko mezuez gain, argia isla-

Militarrez eta indigenez osatutako bilaketa taldea, eta alboan, helikopterotik jasotako irudiak, non argi ikusten den zein itxia den Amazoniako oihana.

ARMADA KOLONBIARRA | AFP - Paulo LOPES / EUROPA PRESS

«MAYDAY, MAYDAY...»

Gailuak motorrean akatsa izan zuela jakin zuten ikerketa egin ostean. Hernando Murcia pilotuak larrialdiko deia egin zuen: «Mayday, mayday, mayday, mayday, mayday, motorra ez dabil ondo, lur sail bat bilatuko dut», esan zuen, lurra hartzeko leku bila zebilela adierazteko. Kontrol dorreak bi pista gertu zituela esan zion, baina 15 minutuz kontaktua galdu zuen ondoren.

Geroxeago, Murcia berriro deitu zuen kontrolera eta San Jose del Guaviaren lurra hartuko zuela esan zuen. «Motorrak potentzia hartu du berriro, San Josetik 120

tzeko gailuak eraman zituzten oihanera. «Leku estrategikotan kokatu dira, eta helburua da haurrek gauzez argiak ikusi eta soinuak entzun ahal izatea, horiengana joan daitezten», adierazi zuten indar militarrek. Egunean zehar ere ikusi ahal dira argiak, eta mila metroraino iristen dira.

Istriputik hilabete bete zenean emaitzarik ez zuten lortu, haurren berririk gabe jarraitzen baitzuten, baina aurkitutako pistek aurrera egiteko animoak eman dizkiete. «Oso gertu gaudela uste dugu», esan zuen Pedro Sanchez militarrek. «Ziur

milia nautikora nago». Eta gehitu zuen: «Sei bidaiari ditut, hiru ordurako autonomia daukat».


Zortzi minutu geroago beste komunikazio bat egin zuen: «San Josetik 109 milia nautikora nago, baldintza bisualak onak dira. 5.500 oin mantentzea eskatu nahi dut». Baina jarraian etorri zen ezbeharrak, hiru minutu eta erdira azken komunikazioa egin baitzuen: «Mayday, mayday, mayday, motorrak berriro du akatsa... Ibai bat bilatu behar dut... Ibai bat dut eskuinean...», esan zuen, bertan ur hartzeko intentzioa adierazteko. Baina ez zuen lortu.

gaude beraiekin gurutzatu gara, baina haurrek bueltak ematen jarraitzen dute», esan zuen oihaneko baldintza zailak nabarmenduta. Izan ere, inguruko begetazioa hain itxia da ezen eguzkiaren argia ia ez den lurrera iristen; ikuspena 20 metrokoa besterik ez da.

Bere ustez, litekeena da San Jorge ibairantz joan izana, eta bertan ez dago inolako komunitaterik. Bertatik iparraldera joango ziren, aurkitutako aztarnen arabera. Hori kontuan izanik, uste dute bilaketa eremua txikiagoa dela.

'Itxaropen Operazioa' izenari huts egin gabe, etengabe errepikatzen dutena esan zuen beste behin: «Bizirik daude, kontrakoa frogatzen den arte». «Hilda baleude, aurkituko genituzke usainak animalia basatiak erakarriko litzuzkeelako, eta gu haraino gidatuko gintuzkete», gehitu zuen ICBFko zuzendari Astrid Caceresek.

Maiatzaren 30ean beste oinatz bat aurkitu zuten lokatza zegoen tarte batean, eta tamainagatik ahizpa zaharrarena dela uste dute, nahiz eta ezin izan duten egiaztatu. Ordurako ia 300 pertsonak osatzen zuten bilaketa taldea.



AFP

IKUSMIRA

URA ERE GERRA TRESNA BILAKATU DA UKRAINAN

Kajovkako presak biltzen zituen 18 milioi metro kubiko ur Dnieper ibaian behera barreiatu dira, presak ez-tanda egin ondoren, eta sekulako kalteak eragiten ari dira. Krimea urik gabe uzteko asmoa egotzita, erantzukizuna Ukrainarena dela argi omen du Moskuk. Kievek Errusiak kontrolpean zituen instalazio hidraulikoak barrutik ezandarazi dituela salatu du -bere Armadaren kontraerasoaldia oztopatzeko asmoz-.

Hotzean aztertuta, bi aldeentzat kaltegarriak lirateke eraso honek eragin dituen ondorioak. Ukrainarrentzat,

ez omen dielako Dnieper ibaia zeharkatzeko aukerarik ematen, bazterrak eta, oro har, Jerson ingurua erabat lokaztuta geratuko direlako. Errusiarrentzat, batez ere krimearrentzat, udara bezperan berriro ere Errusiaren ur horniduraren mende geratuko omen direlako. Eta batzuentzat zein besteentzat, hondamendiak eragina izango duelako Errusiaren kontrolpean dagoen baina Ukrainari argindarra ematen dion Zaporizhiako zentral nuklearrean. Ura ala axolagabekeria bilakatu da gerra tresna? Dabid LAZKANOITURBURU

AZTARNATEGIAK ESTALITA

Aztarnategi arkeologikoak arriskuan, klima aldaketaren ondorioz

Oso etsai ikusgarriak eta suntsitzaileak dira: Iraken, hondar ekaitzak eta gazitza aztarnategi arkeologikoak kaltetzen ari dira. Klima aldaketaren zeharkako ondorioak dira, «asko sufritu eta gutxi ekiten» duen herrialde batean.

Tenplu bat estaltzen duen hareazko muino baten gainetik, Aqeel al-Mansrawi arkeologo irakiarra lau milurteko baino gehiagoko historia ikusten ari da. «Umm al-Aqarib Mesopotamiako hegoaldeko hiri sumertar nagusietako bat da», azaldu du.

Bost kilometro karratutan banatua, Umm al-Aqarib ('Es-korpioien ama', arabieraz) Irak hegoaldeko basamortuan dago. Arorik nabarmena K.a. 2.350 ingurukoa izan zen, orduan hainbat tenplu izan baitzituen, tartean, Sumerreko lurretako Shara jainkoa omentzen zuena.

Orain arteko misioetan, arkeologoek kanalak, buztin zatiak, oholtxoak eta sumertarren historia idazteko beste hainbat pieza aurkitu dituzte. Baina gaur egun, gaizki zaindutako lekuetan ohikoak diren lapurretez gain, Umm al-Aqaribek bete-betean pairatzen ditu klima aldaketaren zeharkako zenbait ondorio, besteak beste, Iraken gero eta ohikoagoak diren hondar ekaitzak. 2022an, dozena bat haize bolada izan ziren herrialdean, AFPren zenbaketaren arabera.

Umm al-Aqariben, hondarrak «gunearen zati handi bat estaltzen du», azaldu du Aqeel al-Mansrawik. Eta «hamar bat urtez» luzatzen ari da fenomeno dagoeneko. Tenplu baten aurrealdea osatzen duten te-

INGURUMENA / Nerea LAUZIRIKA

Dela tenperatura aldaketa bortitzengatik edo hondar ekaitzengatik, adibidez, mundu osoko hainbat aztarnategi arkeologiko arriskuan daude. Klima aldaketak eragiten ditu fenomeno horiek eta arazo larria bilakatzen ari da Iraken, esaterako. Halaber, beste zenbait tokitan, hala nola, Alemanian, orain arte ezkutuan zeuden aurkikuntza arkeologikoak argitara ateratzen ari dira.

rrakotazko adreiluak aurkitzeko, arkeologoak lehenik harea kendu behar du.


«Hurrengo hamar urteetan, litekeena da hondarrak Irak hegoaldeko aztarnategi arkeologikoen %80-90 estaltzea», azaldu du. «Misio arkeologikoek ahalegin handiagoa» egin beharko dute miatzen hasi aurretik.

GIRO «OSO LEHORRA»

Egun, haizeak «hautsez beteago» daude, eta «lur zatiak garraiatzen dituzte, batez ere harea eta lokatza, antzinako eraikinen higadura eta erazketak eragiten dutenak», Jaafar al-Jotheri Irakeko Al-Qadissiyah Unibertsitateko Arkeologia irakaslearen arabera. Negu lehorragoetan eta uda luze eta beroagoetan tenperatura 50 gradutik gorakoa izateak eta «landaretza faltagatik lurra murriztu eta zatikatzeak» dute errua, haren ustez.

Beste etsai bat ingurunea gazitzea dela diote, «oso lehorra» izatearen ondorioz. Mark Altaweel Londresko University Collegeko Ekialde Hurbileko Arkeologia irakasleak azpimarratu duenez, «ura oso azkar lurruntzen denean, hondakin gaziak bakarrik geratzen dira». Eta kopuru handiegian, gaziak dena irensten du.

NBEren arabera, aldaketa klimatikoaren eraginak gehien pairatzen dituen bost herrialdeen artean dago Irak. Egoera ezin hobeto ikusten da Tigris eta Eufrates ibaietan. Irakeko laborantzarako urreztatze iturri nagusiak dira, nahiz eta gaur egun errekas-toak baino ez diren. Prezipitazioz ezak zerikusit handia duen arren, Bagdadeko agintariek, batez ere, Turkiak eta Iranek ibaietatik gora eraikitako presak jotzen dituzte



ibaien emari eskasaren erruduntzat.

KUDEAKETA HIDRAULIKO TXARRA

Ondorioz, Jaafar al-Jotheriren arabera, Irakek «kudeaketa hidrauliko okerrena» egiten du, sumertar eta akkadiar garaietatik datorrena. Gaur egun ere, laborariek uholde bidezko ureztapenera jotzen dute, teknika hori xahutze handitzat jotzen den arren.

Urik gabe geratzen ari direla, gero eta laborari eta abeltzain irakiar gehiago hirietara migratzen ari dira bizirik irauteko esperantzaz. «Nekazariak beren lurra utzi ondoren, lurra haizetearen arriskupean daude, are gehiago», azaldu du al-Jotheri irakasleak.

2021. urte amaieran, Barham Saleh presidente ohiak jakinarazi zuenez, «basamortutzeak Irakeko lurren %39ri eragiten dio», eta kopuru hori handituko dela iragarri zuen.

ETA, ONDARE ARKEOLOGIKOA?

Ustelkeria nonahi dagoela eta petrolioia nahi beste duten arren, biztanleriaren herena pobrezian bizi den herrialde honetan, aztarnategi arkeologikoak alde batera utzita dauzkate. Hala eta guztiz ere, Chamel Ibrahimek, Dhi Qarreko Antzinateko zuzendariak –probinzia horretan dago Umm al-Aqarib–, ziurtatu du Gobernua «hondarrezko dunei eusteko lanean» ari dela.

Besteak beste, zuhaitzez egindako «gerriko berdea» landatu behar dute inguru horretan, 5.000 milioi dinarreko (3,5 milioi euro inguru) kostuarekin. Jaafar al-Jotherik, hala ere, zalantza du oraindik, landaretza bizirik mantentzeko «ur asko behar baita». «Klima aldaketaren ondorioak gehien sufritzen dituen herrialdea ga-



Alboko orrialdean eta lerro hauen gainean, Aqeel al-Mansrawi arkeologoa Umm al-Aqarib aztarnategian, Iraken.

Asaad NIAZI | AFP

ra, eta haren aurka gutxien egiten duenatarikoa», dio.

Hala ere, Irak ez da arazo hau pairatzen duen herrialde bakarra, NBEk 2018an argitaratutako “Mundu mailako ondarea eta turismoa, klima aldakorreen” txostenaren arabera. Gehiegizko joan-etorriek, urbanizazioak, kutsadurak edo planifikaziorik ezak interes gune askoren kontserbazio maila baldintzatu dute. Orain, gainera, itsasoaren mailaren igoera ere arriskutsua izan liteke.

«Klima aldaketaren ondorioak gehien sufritzen dituen herrialdea gara, eta haren aurka gutxien egiten duenatarikoa», Jaafar al-Jotheri irakaslearen hitzetan

Arkeologo batzuek uste dute hondar pilaketek aztarnategiak arpilatzaileengandik eta eguraldi txarraren eraginpean egotetik babestu ditzaketela

Arkeologo batzuek uste dute hondar pilaketek aztarnategiak arpilatzaileengandik eta eguraldi txarraren eraginpean egotetik babestu ditzaketela. Izan ere, lurperatuta dauden aztarnategi askok milaka urtez iraun dute onik horri esker. Baina Michael Fradleyk, Oxford unibertsitateko Arabiar Penintsulan espezializatutako arkeologoak, uste du ingurumenaren gertatzen diren aldaketa azkarrek kalte handiagoa egingo dietela aztarnategiei,

salbatzen lagun dezaketen ustezko onurek baino. «Milaka urtean aztarnategi horiek izan duten egonkortasuna aldatzen ari da», adierazi du.

BATZUK ESTALI, BESTEAK BISTARATU

Duela hilabete batzuk Alemanian izandako lehorte handiak ‘hungerstein’ deiturikoak utzi zituen agerian; ‘gosearen harriak’, hain zuzen ere. Batzuek ehun urte dauzkate, eta ibaien maila baxuak zekartzan gose teekin lotuta daude.

«Ikusten banauzu, egin ezazu negar», diote berriro ikus daitezkeen harri batzuetan egindako inskripzioek. XV. mendeko tradizio baten parte dira eta aipatutako esaldia, adibidez, Elba ibaian aurkitutako harri batekoa da, 1616koa. XIX. mendean bidaiari askok, lehorte garaian, ‘hungerstein’ harriei buruz idatzi zuten.



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Kapsulitis itsaskorra

Esan genezake fisioterapia zentro batean ikusten ditugun hamar arazoetatik lau bat sorbaldakoak izaten direla. Horien barruan, lautatik bat, gutxi gorabehera, gaur azalduko duguna bezalako kasuak. Kapsulitis itsaskorra erlatiboki ugaria da. Batzuetan, zerbaiten ondorioz izaten da (kolpeak, bihurturak, luxazioak...), baina gehienetan ez da horrela izaten: ez da arrazoi argirik izaten, pazientea ez da gai gogoratzeko sorbaldako min eta mugiezintasun hori zerk eragindakoa den.

Sintoma zehatzak eta arazoaren bilakaera pertsona batek bestera aldatzen badira ere, bada ia denetan errepikatzen den txantilo bat: hain da garbia txantiloia, ezen izen propioa duen ("patroi kapsularra") eta arazoa diagnostikatzeko balio digun ezaugarri nagusia den. Detailetan sartu barik, esan dezagun sorbaldako artikulazio nagusiaren mugimenduek (flexioa, estentsioa, abdukzioa, adukzioa, barne eta kanpo errotazioak) izaten duten murrizketa karakteristiko bat izaten dela, beti berdintsua eta beste patologiek eragiten dituzten murrizketekin alderatuta bereizgarria. Horrez gain, esan bezala, sintoma gehiago ere egon daitezke; tipikoena mina ohean izatea da, pazientea geldirik dagoenean.

Behin arazoa garatuta dagoenean, hala ere, tratamendua sinplea da, oso sinplea, egia esan: mugitzea, mugitzea eta mugitzea. Fisioterapeutok kontsultan zein pazienteak bere kontura eginiko mugimenduak izango dira tratamenduaren oinarria, baina kapsula biguntzeko teknikak erabiltzen badira (berotasuna aldeztetik ematea, adibidez), ariketak errazago egingo ditugu. Bistan denez, ariketon intentsitatea, irismena eta pronostikoa ezberdina izango da pazientearen egoeraren arabera: ez da gauza bera flexioa 45°tan mugatuta izatea edo 135°tan. Baina oinarrian, mugimenduarekin kapsula malgutzea da egin behar duguna. Nahikoa da mugimenduaren mugetaraino ailega-

tzea eta bertan pixka batean eustea; ez da beharrezkoa min handirik ematea. Medikuek agindutako farmakoak ere lagungarriak izaten dira fisioterapia tratamenduan, horien eragin analgesikoarengatik ariketen irismena hobetzen baita, eta horrek eboluzio bizkorragoa ahalbidetzen du.

Kapsulitis itsaskorraren jatorria, esan bezala, iluna da eta gehienetan ez da arazoaren pizgarri ezagunik izaten. Aipatu behar dugu, ostera, azken urteetan neurofisiologia aldean egiten ari diren ikerketen arabera, immobilizazioak paper garrantzitsua jokatu dezakeela. Mugikortasun falta hori, gainera, kanpo arazoiengatik izan daiteke (besoan igeltsu bat, adibidez), baina baita aukeraturakoa ere. Alegia, besoa gutxiegi mugitzen badugu (mugimenduak min pixka bat ematen digulako, adibidez), sorbaldako artikulazio horretan kapsulitis bat garatzeko aukera handiagoa izango dugu. Oraindik ezin da ondorio zuzenik atera, gehiago ikertu behar delako, baina hori susmarazten duten zantzu asko daude; beraz, kapsulitis itsaskorrik ez garatzeko aholku preventibotzat har dezakegu. •

<http://www.abante.eus>



Fisioterapia zentroetan hamarretik lau sorbaldako arazoak izaten dira. GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon SOLA**

Frontenis edo pala motza, zintzo jokatu edo etxekalte

Udaletako, aldundietako eta Nafarroako Parlamentuko eserlekuak banatuta daude 2027ra arte, baina lau urte hauetarako jokaleku politikoa –benetan ziklo berria izango al da?– ez da uztailaren 23ko gauera arte irudikatuko. Edo geroago, Pedro Sanchezen apustuak porrot eginez gero, PSOEk norantz jotzen duen ikusi beharko delako. Nafarroan beste inon baino lehen ikusaraziko luke, Espainiako Gobernuak Nafarroakoaren ondoren zehaztu beharko baita.

Etxeko lanak eginda iritsiko da EH Bildu ataka horretara, ekainean oso nota ona lortuta. Duela bost urteko gainbehera (neurri batean, 2011n irekitako garai berrira egokitzeko zailtasun logikoaren ondorioa) gainditzen asmatu du. Gazteen abstentzioaren arriskua ere garaitu du. Nafarroan, Araban eta Bizkaian sendotu da, eta Gipuzkoan EAJri aurre hartu dio.

M28ko emaitzak baieztatu duenez, bere jatorrizko sektore politikoak ez ezik boto-emaileen segmentu berriek ere ulertu eta babesten dute EH Bilduren estrategia. Kongresu eta Senatuan garatutakoa barne, eta garrantzitsua da hori, espainiar gobernagarritasuneari konpromiso batzuk hartzeak zenbait kontraesan ekar diezazkiokelako. Ez da gertatu, euskal gizartearen gehiengoak argi duelako erronka nagusia garai honetan eta munduaren zati honetan olatu erreagionarioa geldiaraztea dela, Trumpengandik Melonirengana, Bolsonarorengandik Feijoo-Ayuso-Abascalengana.

Hortik aurrera, jakina, Estatuko uztailaren 23ko emaitza ez dago bere esku. Baina ezkerreko independentismoa lasai joango da hauteskundeetara, ondoren sor daitekeen agertoki bakar bat ere ezezaguna izango ez zaiolakoan. Orain arteko gehiengo berretsi ezker, Madrilgo paretaren aurrean frontenisean jokatzen jarraitu ahal izango du, erraketa eskuan eta erritmo ero-

soagoaz. Eskuinak irabazi eta larruzko pilota hautatzen badu, giharrak eta tresnak ere baditu erronka horri aurre egiteko, kaskoa buruan eta pala eskuan. Partida gogoragoetan jardun du eta krisialditik aukera berriak urratzeko gaitasuna izango du.

Horrelako historia luzea atzean izanda, EAJri ere perspektiba eta lasaitasuna ez litzaizkioke falta behar, baina maiatzaren 28ko emaitza txarrak antsietate-erasoa eragin dio, PSErekin egindako akordio orokor eskasean islatzen dena. Urduritasunak argitasun faltarekin du zerikusia, izan ere, indefinizioa lehenagotik dator. Bere buruzagiek hilabeteak daramatzate «San-

U23aren ondorengo agertoki guztietarako prest dirudi EH Bilduk, gihartsu eta tresna ezberdinak eskutan; urduri eta aurrera korrika ihesi, aldiz, EAJ

chez edo Feijoo» galdera sinpleari erantzun garbirik eman gabe. Oso adierazgarria da hori.

Aitor Esteban PPrekin trapitxeo-garaiak errepikatze-ko prest dagoela dirudi. Gogoratuko duzue: «Si me quieres Mariano, da menos leña y más grano», eta horrelakoak, duela ez urte asko. Baina PP hori Ayusorena da gaur egun, eta Vox izango du ondoan, nahiz eta Andoni Ortuzar hipotesi faltsua planteatzen ari den: ultraeskuina alde batera utziko duen gehiengo eskuindar zibilizatu demokrata bat egon daitekeela.

Harrigarria da pentsatzea 2023ko euskal gizarteak akordio horri babesa emango liokeela, eskubide sozialen, berdintasunaren, Euskal Herriaren eta euskararen aurkako eraso etengabea baino ezin dezakeelako ekarri. Bide horretan EAJk ez du uztarik bilduko Feijooekin, gehiago ustelduko da. EH Bildurena baino kinka larriagoan daude jeltokideak, sakonagoa da beren hautua: beren larrua salbatu nahian etxekalte? •

KIROLA, ARNASGUNE

«Entrenatzen» proiektua, kirolean euskararen giharra ere indartzeko

📁 **KIROLA** / Nerea GOTI

Bilbon, «Entrenatzen» proiektua garatu du Kukulaisi Aisialdirako Topaguneak Deustualdeko hainbat kirol talde eta eskolatan. Kirolari gazteak elkarriketatzea izan da ariketa zentrala, beste konpromiso eta urrats batzuk ekarri dituen, kirola euskararen erabilerarako arnasmune bilakatzeko.

Sareetan aurkitutako bideo bat da. *Play* sakatu eta Irati eta Nahia izeneko futbolari gazteak agertzen dira hizketan. Kirol kazetarien antzera, elkarriketazaileak jokatu berri duten partidari buruz galdetzen die, euskaraz. Partidaren hainbat unetako irudiak tartekatzen dira bideo editatuan, eta kirolariak jokatutako partidaren inguruko iritziak ematen dituzte; nola sentitu diren, partida nola ikusi duten, jokalaririk onenak zeintzuk izan diren... hori guztia, euskaraz.

Pentsa daiteke euskaldunen arteko elkarriketa horiek euskaraz izateak aparteko misteriorik ez duela, baina zenbat kirol jarduera burutzen dira erdaraz entrenatzaileak zein kirolariak euskaldunak izan arren? Askotan urteetako inertiak egoten dira horren atzean, kasu batzuetan eraisteko hain zailak ez direnak. Ingurune erdaldunduetan, non haur eta nerabeen euskararen erabilera eskola mundura mugatuta egoten den, kirola arnasmune izan daitekeela frogatu dute Deustualdean.

Esperientziak helburu zehatz bat izan du, euskaraz bizitzeko eskola ez den espazio bat irabaztearekin lotutakoa. Esperientzia gertutik eza-

gutzeko, proiektuan parte hartu duten eragileekin hitz egin du GAUR8k.

‘Entrenatzen’ proiektua da, eta ariketa xume hori, elkarriketa, egitasmoaren ardatz nagusia izan da. Helburu bat zuen finkatuta. haur eta gazteen kirol jardueretan euskararen erabilera sustatzea, eta lortu du. Orain esperientzia

Deustu Arraun Taldearen instalazioetan egin du hitzordua GAUR8k, ezkerretik hasita Jone Oliban, June Furundarena, Jon Mikel Dominguez eta Usune Elizondorekin.
Aritz LOIOLA | FOKU

baloratu behar dute, ekimenari jarraipena emateko aukerak aztertu... baina eragileen artean esperientzian sakontzeko asmoa sumatzen da.

Antolatze lanetan ibili direnek zehaztu dutenez, hainbat eragileren ahalegina dago atzean, baita proiektua lantzeko hainbat saio ere, baina praktikan, prozesu natural bat jarraituz, entrenamenduen arduradunak eta kirolari gazteak euskaldunak izanik, euskararen erabilera era naturalean ezartzea lortu da askotan. Beste kasu batzuetan, ingurunearen ezaugarrien arabera, euskara eta gaztelaniaren erabilera uztartu dira, euskaldunak ez diren kirolariak egon direnean, baina finean esperientzia txalotu dute parte hartzaileek, hizkuntzaren ar-

loan emandako aurrerapausoaren ondoan, kirol jarduna bera ikusgarriago egiteko aukera ere izan delako, adibidez.

MODU LUDIKOAN LANDUTA

Bilboko Deustualdean jarri dute abian esperientzia, hainbat aisialdi elkartek osatzen duten Kukulaisi Aisialdirako Topaguneak bultzatuta. Ekimenak La-kuako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuaren eta Bilboko Udaleko Euskara Sailaren laguntza izan du.

Aisialdia eta euskara dira sare horren partaideen lan eremuaren ardatz nagusiak. «Proiektu ezberdinak lantzen dituzten 18 bazkide daude Euskal Herri mailako topagunean», eta «horien artean



proiektu txiki bat zuen Berbaizu elkarteak. Ideia hori jorratzen hasi ginen, elkarlanean, eta hortik sortu zen egitasmoa helburu zehatz batekin: kirol eremuan gazteen artean euskararen erabilera areagotzea, gazteei eremu ez formalean euskara erabiltzeko aukera emanez», azaldu du June Furundarena Artesano Kukulaisi Aisialdirako Topaguneko zuzendariak.

Egitasmoaren gakoa bideoz grabatutako elkarrizketa horiek dira, aurretiko lanketa bat izan dutenak. Gazteen ahozko-tasuna lantzea izan da asmo nagusietako bat, eta horren barruan elkarrizketa izan da ariketa nagusia, tresna moduko bat. Zehaztutako norabide horretan hainbat eragileren parte hartzearekin lan egin dute: kirol klubetako zuzendaritza taldeak, entrenatzaileak, familiak, irakasleak... eta guztiekin aurrelanketa bat egin dute. Dinamika kirol taldeetan garatu da, baita zenbait eskolatan ere, eskola kirolaren eremuan, irakasleen eta guraso elkarten parte hartzearekin.

«Gurasoekin sentsibilizazio saioak egin ditugu kontzientziatzeko, gurasoek eurek grabatzen dituzte bideoak; entrenatzaileekin, ahozko-tasuna lantzeko, eta formazio saioak izan dira zer estrategia erabil ditzaketan jorratzeko, gerta baitaiteke euskaldunak izatea baina agian egunerokoan euskaraz ez egitea edo erdizka egitea», zehaztu du Furundarenak eta inguruko errealtate ezberdinak kontuan hartu direla nabarmendu du.

Prozesu horretan, zuzendaritza taldeko ordezkariak klub mailan egin daitezkeen aldaketek edo urratsez hitz egin dute. Gurasoekin, ariketak dituen onurak aztertu di-

Berbaizu Elkartearen lan bat izan zen proiektuaren hazia, eta kirol elkarrizketa izan du ariketa zentrala, euskararen erabilerarako eskola ez den espazio bat irabazteko

Haurren ahozko-tasuna lantzea izan da helburu nagusia, baina kirolean: hurrek edota nerabeek «plazerarekin edo emozio positiboekin lotzen duten» testuinguru batean

tuzte, eta kirolariekin ere elkarrizketaren beraren lanketa egin da, «modu ludikoan, hizkuntza jorratzearen bidez elkarrizketa bera landuz, nola egiten den, testuingurua jarritz, gero haiek galderekin probatzeko...».

ELKARRIZKETA IZATEAREN ARRAZOIA

Aurrelanketa horretatik elkarrizketen fasera igarota hau proposatzen zitzaien: gurasoek eurek grabatzea, kirol saioen bideo laburrak ere egitea, eta amaieran, elkarrizketaren grabazioa egitea. «Gero Kukulaisik editatu ditu bideo horiek eta Interneten partekatu, sareetan zabaldu... Eta "Uriola" herri komunikabidearen bitartez, Youtubean», zehaztu du urrats teknikoago horiez.

Helburua ez da «sekulako bideoak sortzea, baizik eta haiek ikusteko moduko batzuk egitea, argitu du gazte larrabetez. Haur eta gazte horien interesak, motibazioa... ere proiektuaren osagai nagusietako batzuk izan dira, erantsi duenez.

Lau kirol klubetan garatu dute proiektua: Deustu Kirol Elkartea, Artizarrak Futbol Kluba, Elorrieta Kirol Elkartea eta Deustu Arraun Elkartea. Eskola kirolera ere eramanteko ekimena lau ikastetxe publikotan: Deustuko Eskola, Intxixu Ikastola, Deustuko



Dominguez eta Furundarena Kukulaisi sareko ordezkariak. Aritz LOIOLA | FOKU

ELORRIETAN, TXIKIEN ADIERAZPEN MAILARI ADI ETA URRATS BERRIEN BIDEAN

Elorrieta Kirol Elkarteak, 6 eta 12 urte bitarteko 180 neska-mutil inguru aritzen dira futbolekin ikasturtean zehar. Horietako gehienak, entrenatzaile asko bezala, euskaldunak dira, baina ez guztiak. Egunerokotasunean gaztelania da nagusi entrenamenduetan eta taldearen funtzionamenduan, nahiz eta komunikazioak, adibidez, elebidunak izaten saiatzen diren.

Elorrieta 'Entrenatzen' proiektuan sartu da buru-belarri, Kukulaisiren eskutik. Balorazioa eskatu dio GAUR8k Gorka Puertas elkarteak idazkariari. Balantzea positiboa da, baina ez pentsatu bezain erraza. Hizkuntzarekin baino, adinarekin lotuta egon daitekeela uste du, 7 eta 10 urteko hurrekin lan egin baitute, eta adin horietan ahozko adierazpena ez baitago

adin altuagoetan bezain landuta, zehaztu duenez. Aipatu du txikienekin hizkuntza-pilula moduko batzuk landu dituztela azalpen luzeak erabili beharrean, eta inertzien aldaketa hortik has daitekeela uste du. Epe ertain-luzeko proiektu gisa ulertzen du ekimena, beste urrats batzuk ekarri dituen; adibidez, barruko komunikazioetan, euskararen erabilera indartzea. Konpromisoa argia da, baina tresnak behar ditu boluntarioekin funtzionatzen duen talde batek, eta bide horretan daude. Puertasen ustez, kirolak eginkizun handi bat du normalizazioan eta arlo horretan erreferentzialtasuna eskaini dezakete kirol elkarteek, baina horretarako instalazioen erabilera ere bermatu beharko litzateke, taldean kanpoko instalazioak erabiltzera behartuta baitaude.



Haur eta gazteen artean ahozketasuna indartzea da «Entrenatzen» proiektuaren helburu nagusia, kirola bezalako eremu ez formal batean. Lerro hauen ondoan, neska bat saskibaloian jokatzen, artxiboko irudian. Azpian, proiektuan parte hartu duen Elorrieta kirol elkarteko taldeetako bat. Marisol RAMIREZ | FOKU - ELORRIETA KIROL ELKARTEA

Ikastola eta San Inazio Eskola. Eskola eremuetan, proiektua jorratzeko, irakasleen eta guraso elkartearen laguntza izan dute.

Elkarrizketa horiek ardatz nagusia izan dira, eta aukeraketa hori gazteen emozioekin eta interesekin lotuta dago, hein handi batean. «Kirolaren eremuan ahozketasuna lantzea izan da helburu nagusia, baina tematika kirola da, haiek emozio positiboekin lotzen duten testuinguru bat izatea nahi genuen», argitu du Jon Iñaki Dominguez Petralanda Topaguneko kirol arduradunak.

Hainbat ingurutako haurrek euskara eskolarekin lotzen dute, azterketetako hizkuntzarekin...eta proiektuak emozio positiboekin lotu nahi du euskara, plazerarekin, kasu honetan kirolarekin», dio Dominguezek.

Proiektuak hainbat fase izan ditu. Gurasoekin eta guraso elkarteekin euskara sustatzeko kirolak duen estrategikotasun mailaren inguruko sentsibilizazio tailerra egin dute. Dominguezek azpimarratu duenez, erraztasunak emateko, eta trebetasunak eskaintzeko, esku hartze ezberdinetan laguntzeko formazioak izan dira, «bakoitzari egokitutako formazioa eta edukiak» prestatzeko. Zuzendaritza taldeaz, gurasoez edota entrenatzaiz-

leez gain, haurrak haiek ere saio horien protagonista izan dira, «ahozketasuna lantzeko eta elkarrizketa prestatzeko» behar zuten laguntza emateko.

EREMU EZ FORMALA

Dominguezen arabera, oso garrantzitsua izan da elkarteekin eta ikastetxeekin izandako lanketa, eta komunitate ho-

rien inplikazioa jasotzea, aurrerapausoak egon direlako hizkuntzaren inguruko inertzien apurketan.

Deustualdea bezalako inguru txiki batean garatu bada ere, oso errealitate ezberdinak ikus daitezkeela azpimarratu du, espazio batetik bestera «alde handiak» daudelako, eta horrekin lotuta eta egitasmoaren jarraipena egiteko, pilotajea egiten ari direla zehaztu du, egitasmoaren «atal potolo bat»; «irudi orokor bat ateratzeko», alegia, Soziolinguistika Klusterraren ildoak jarraituz.

Kirola eta elkarrizketa ere ez dira ausaz aukeratuak izan. Gogoratu du azken boladan pisu handia hartzen ari dela espazio ez formaletan eragitearen beharra, «eskolak sekulako lana egiten duelako hiz-

kuntza mailan, baina hortik kanpo aisialdia eta, horren barruan, kirola oso espazio garrantzitsuak dira. Espazio erla xatu horietan harremanak sortzen dira, eta horrek eragina du hizkuntzan. Azpimarratu duenez, hainbat ikerketa daude horretaz eta horien inguruko informazioa partekatu dute proiektuko eragileekin, familiekin adibidez, egitasmoaren proiektzioa azaltzeko.

«BEHAR GENUEN BULTZADA»

Jone Oliban Lizarraga proiektuan parte hartu duen entrenatzaileetako bat da. Onartu du dinamikan buru-belarri sartzeko gogoia bai, baina zailtzak ere izan zituztela hasieran, kirolari gazteek gogoz hartuko ote zuten.... Erantzuna, aldiz, oso ona izan da, bere



hitzetan. «Oso ondo sartu dira» eta momentu batean ere ez dute jarraitzeko aukera zailtzan jarri.

«Haiek gogoz hartu dute, guk entrenatzaileok gogoa izan dugu giro euskaldun bat izateko, eta azkenean, proiektu hau izan da pausoa egiteko behar genuen bultzada», azaldu du entrenatzaile eta zuzendaritza taldeko partaide Olibanek.

Arraun taldean 160 fitxa dituzte eta 48 neskenak dira. 14 eta 15 urteko gazteekin entrenatzen du Jone Olibanek. Gaztetxo horien artean zer nolako erantzuna aurkitu duten galdetuta, hasieran lotsa puntu batekin hartu zutela aipatu du. Ondorengo prozesuaren inguruan, esan du, adibidez, elkarrizketak egiteko orduan denbora eman zitzaizela «apur bat mentalizatzeko, gogoz egiteko, ideiak zelan ahal zituzten adierazi komentatzeko...», eta kanpoan, familiek ere dinamika interesarekin jarraitu dute la gaineratu du.

Hizkuntzaren ondoan, elkarrizketa horiek lantzen izan duten esperientzian sakonduta, erantsi du urduritasun puntu bat erakusten zutela, sareen mundu horretan pertsonalki agertzeak eragin ohi duen presio puntu horrekin, mezua ondo azaltzeko, itxura ona emateko...

Pozik daude proiektuarekin, «eurentzat [kirolari gazteak] polita izan da. Azkenean, euren igarri dute diferentzia aurreko egunerokotasunarekin alderatuta: batzuetan euskaraz eta beste batzuetan erdaraz egiten genuen, biak uztartzen, eta orain saiatu gara euskararen erabilera indartzen». Zehaztu duenez, zenbait taldetan euskaraz ez dakiten kirolariak ere badira, eta

Deustu Arraun Taldean oso positibotzat jo dute egitasmoa, euskara indartzeko gogoa zegoela eta «Entrenatzen» dinamika horretarako bultzada izan dela azaldu dute

Proiektuarekin hasitako bidean hiztegia landu dute, euskarak espazio berriak irabazi ditu, eta kirola bera ikusgarriago egiteko ere balio izan du kirol elkarrizketen bitartez

beraz, zaila da euskara hutsan egitea, euskaraz egin ondoren dena erdaraz egin behar izatea...».

Elkarrizketak sare sozialetara igotzeak izan duen eragin-kortasuna ere aipatu du Olibanek. Adin horietan garrantzi handia duten sareen munduarekin kontaktuan izan dute hizkuntza esperientzia eta ho-

ri estimulagarria izan da, motibagarria. Horren froga da elkarrizketa horiek sareetan partekatu izana, eta zer egiten duten erakusteko aukera izateak ere balio handia izan du. Izan ere, Jone Olibanek zehaztu duenez, «justu arrauna, beste kirol batzuekin alderatuta, apur bat ezezagunagoa da edo ez dauka, esaterako, futbolarak daukan oihartzun bera... Eta proiektuak kirola bera erakusteko ere balio izan du, eta haiek ere apur bat berezi sentitu dira».

Kirolak berak proiektuan izan duen protagonismo horretaz komentatu du kirolaren berezko hiztegia ere lantzeko egin duten ahalegina, erronka handiegietatik urrun baina «gutxika-gutxika, hiztegia sartzen». «Lortu dugu, eskola ere-

mutik kanpo, euskara naturaltasun handiagoarekin erabiltzeko helburua. Konturatu gabe hasieran erabiltzen ez zituzten hitz horiek orain zuzenean esaten dituzte entrenatzaileei zuzentzen zaizkienean», erantsi du Usune Elizondo Deustu Arraun Taldeko entrenatzaileak.

Taldea bera, kluba, euskaldunagoa dela aipatu dute alde positiboan artean: «Uste dugu klubaren egunerokotasunean euskara presentago dagoela eta, beraz, pozik gaude egindako aldaketarekin». 'Entrenatzen' proiektuak ahalbidetu dituen urrats berriekin, kirolak euskarari zabaldu dizkio ateak. Orain proiektuarekin jarraitzea da asmoa, euskararen arnagune horrek hazteari utz ez diezaion.

«Entrenatzen» proiektuko eragileak, San Inazio, Deustu Arraun Taldearen instalazioen ondoko pantalanean.
Aritz LOIOLA | FOKU





EXPRAI

iRRITZIA:

BA NIK EZIN DUT GEHIAGO...!
ETA ORAINDIK ASTEBETE FALTA DA
UDALAK OSATZEKO!





Ander Fernandez eta Imanol Espinazoren proiektua da Ostempo Nuna (Etorkizuna Orain, esperantoan), Hendaiaiko Borderline Fabrika-ekin elkarlanean osatua. Zuzeneko irratsaioak egin izan dituzte bi artistek; aunitz gus-tatzen zaien mundu bat da soinuarena eta irratia-rena. Antzerkigileak ere badira, eta bi pasioak uztartuz fikzio bat muntatzen hasi ziren duela urtebete.

«Nola hitz egingo diogu etorkizunari?». Galdera hori izan zuten abiapuntu, film eta telesailetan badelako zientzia fikziorako ohitura, baina antzerkian gutxiago.

Aitzakia gisa hartu zuten 500 urte barru biziko direnei mezua uztea, baina gero konpromisoa hartu zuten jendea-ekin, eta jolasa zena serioago bilakatu zen, benetako.

BETI BIZTANLEEN XERKA

Hendaiaiko karrikara atera dituzte Ostempo Nunako mikrofonoak, urtaro guztietan, bidean ikusi dituzten pertsonen mezu bat grabatzeko aukera

OSTEMPO NUNA

Utzi zure mezua hemendik 500 urtera biziko direnek aditu dezaten

📁 JENDARTEA / Maider IANTZI GOIENETXE

Soinu kapsula bat urperatuko dute gaur Hendaian, eta Bidasoaren zolan utzi, altxor bat bezala, hemendik 500 urtera norbaitek aurkitu eta adituko duen esperantzaz. Zortedunak gaur egungo jende xehearren mezuak jasoko ditu, haren bizimodu, ardura eta ilusioen arrastoak.

eskainiz. Gaztelu Zahar, hondartza, merkatua, mediateka, La Grande Ilusión liburu denda, Casa José taberna eta Borderline Fabrika bera izan dituzte grabaleku.

Horrez gain, adituak elkarriketatuko dituzte zuzeneko irratsaioetan: David Alonso, Andoni Etxarri, Xabier Erkizia, Mikel Valero, Maria Jose Noain eta Helga Massetani. Eta kontaktuzko futurista bana eskatu diete Aurelia Arkotxa, Alexia Papantchev eta Oscar Manso idazleei.

Mediazioak ere egin dituzte. Alde batetik, Txingudi izeneko adin txikikoen hezkuntza zen-

troarekin jarri ziren kontaktuan han dauden gazteak ezagutu eta haiei aditzeko. David Alonso arkeologoa ibili zen sei egunez haiekin lanean, eta Youssafa eta Gaétan-en hitzak jaso zituen.

St. Vincent kolegioko eta AEKko ikasleekin ere egin dituzte mediazioak. Hirurak dira Geltoki auzoko eragileak.

KAPSULAREN EDUKIA

Emaitza beirazko soinu kapsula bat da. Binilo bat du barnean. A aldean, soinu guztien laburpena dago, zazpi minututan. B aldean, bi piezatan, Fernandez eta Espinazoren gogoeta eta, batez ere, galderak, umorez eginak. Soinuaren trazua euskarri fisikoan jasotzeko aukeratu dute biniloa.

Material guztia biltzen duen MP3 irakurgailu bat, argindar sorgailu bat, argibideak eta artisten selfie bat ere sartu dituzte kapsulan. Irungo Argia


Badago tailerrean sortu du artefaktua Igor Obesok. Zementuz babestu du kristala, luze iraun dezan.

EKITALDIA

Gaur urperatuko dute kapsula tenporala, goizeko hamaike-tan, marea gorarekin. Ekintza sinbolikoa izanen da. Pasaiaiko portutik etorriko da itsasontzi bat, eta Kanetan jasoko ditu kapsula eta hiru urpekari. Horietako bat da Alonso arkeologoa. Avenida zubian izanen dute zain jendea. Behin itsasontzia kokatuta, Bidasoaren hondora lagunduko dute kapsula hiru urpekariak. Dena grabatu eta irudietan dokumentatuko dute.

Bi xede ditu Ostempo Nuna: jendeari erraten uztea, eta errandakoa ongi jasotzea, noizbait norbaitek aditu dezan, 500 urteren buruan adibidez. «Nolakoak ginen galde-tzen badute, beste inork ez

Imanol Espinazo eta Ander Fernandez, Ostempo Nunaren sortzaileak, proiektuaren emaitzarekin, soinu kapsularekin, Hendaiaiko Borderline Fabrika. Ondoko irudian, kapsula bera.
Guillaume FAUVEAU



dezan gure ahotsa lapurtzeko, gure hitzak nahasteko edo manipulatzeko aukerarik izan». Bertze modu batera erranda, soinuen bidezko fikzio kolektibo konpartitu bat sortu nahi izan dute, «kontatua den guztia, azkenean, fikzio bilakatzen baita. Baita egiazkoa denean ere», egin dute gogoeta.

OSTEMPONUNA.COM

Webgune batean paratu dute material guztia; bost urtez utziko dute entzungai, eta gero ezabatu egingen dute. Itsasoko biztanleen konpainia ederrean geldituko da altxorra, mareen eragin kulunkagarri eta misterioitsuan.

Ostemponuna.com-en soinua aditu nahi izanez gero, kaskoak jartzea aholkatu dute Hendaiaiko artistek. Urpean bazeunde bezala jasoko dituzu mezuak, anabasa batean, hiru hizkuntzatan: euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz. Denbora osoan erabili dituzte hiru

hizkuntzak proiektuan. Gaur egun ditugun kezka eta arduaren berri ematen dute ahotsak. «Asko ofizialak dira: klima, bakea, hizkuntzak...». Jendeak pisuzko zerbait erran nahi izan duela nabaritu dute. Norberak bere ikuspuntutik egin duela ere bai. Adibidez, adinekoak zaintzen dituen herritarrak horri lotutako kontuak aipatu ditu.

Zer erran duten bezain inportantea iruditzen zaie Ostempo Nunaren sortzaileei nola erran duten. Errateko moduak, hitz handien ondoan dagoenak, momentu batean sumatutako zalantzak... aunitz kontatzen dute.

DISTOPIA POSITIBO BAT

Utzi etorkizunerako zure mezua. Hori hasi ziren herritarrei eskatzen. Baina momentu batean distopia katastrofista batean erortzeko arriskua ikusi zuten eta eskaria moldatu zuten pixka bat: «Erran kaixo

Jendeari mezua uzteko gonbita luzatu diote proiektuaren bultzatzaileek hainbat lekutan. Ezkerrean, Hendaiaiko geltokiko Casa Jose tabernako terrazan egindako saioa; eskuinean, Sokoburu auzoan egindako grabazioa.
OSTEMPO NUNA

etorkizunari». Hitz zerrenda bat eskaini, bat aukeratzeko erran, eta martetar bati bezala esplikatzeko ere galdegin diote jendeari. Hala lortu dute utopiaren eta distopiaren artean igeri egitea, distopia baikor bat eraikitzea eta hutsalak diruditen mezuak adierazgarri bihurtzea.

Garrantzia eman diote ariketa egiteko moduari.

ETORKIZUNERAKO POSTALAK



Etorkizunerako postalak ere baditu Ostempo Nunak. Gaurko Hendaia abiapuntu hartuta sortzeko proposatu zioten ManuBerk artista bisualari, eta hamar egin ditu. Borderline Fabrikan daude salgai.

Etxebizitzaren prezioak, migratzaileen trabaz betetako bidea, gehiegizko turismoaren kalteak... «Hendaia B aldean erakusten dute. Harrera herria da Hegoaldeko jendearentzat, turista guztientzat, bigarren etxebizitza dutenentzat, ez



*Egun on,
etorkizuna!
Gaur, otsailak
24, ostiralez,
inauteriak
Hendaian...
Begiratu ondo
zure barnean,
inguruan
dagoena
maitatzeko...
Txingudiko
errepublika,
zergatik ez?*

*Etorkizunaren
beldur naiz bizi
naizen oraingo
mundua ez
zaidalako
gustatzen...
Euskara
bereziki
mintzatuko
duzuela, hori
espero dut
bihotz-
bihotzetik...
Atzo eta
herenegun
euria egin zuen.*



hainbeste bidean diren migratzaileentzat», azaldu digute artistek. Eurak ere adoptatuak dira: Errenteriakoa da Fernandez eta Iruñekoa, Espinazo.

Gure arrastoa utzi nahi dugun izaki efimeroak gara, eta izaera horretaz kontziente egitea amildegi baten ertzera hurbiltzea bezalakoa izan daiteke. Hemendik 500 urtera biziko den balizko entzule bati mintzatuz eta hura nolakoa izanen den imajinatuz, hausnarketa eta eztabaida kolektibo eta pertsonala egin dute. Hori zen helburua eta bete egin dute. Baina proiektua ez da amaitu. Adibidez, webguneari bizia eman nahi diote eduki berriekin eta, altxorrera iristeko, mezua belaunaldiz belaunaldi pasatzea ere buruan dute. Bertzela, nola aurkituko dute?

BORDERLINE FABRIKA

Hendaiaiko tren geltokiaren ondoan dagoen Borderline Fa-

brikan aritu gara honetaz guztiaz Ander Fernandez eta Imanol Espinazorekin. Elkarre honetan lurralde proiektu bat egiten dute urtero, eta Ostempo Nuna da aurtengoa.

Atea irekia dago eta txirrinik jo gabe sartu gara. Espazio zabala da, atsegina eta argitsua. Izkina batean barra bat du eta usain goxoa heldu da sukaldetik. Elkarteko kide batzuk eza-gutzeko aukera izan dugu; euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz mintzo dira. Besoak zabalik hartu gaituzte eta etxean sentitu gara.

Emaitza beirazko soinu kapsula bat da. Binilo bat du barnean. A aldean, soinu guztien laburpena dago, zazpi minututan. B aldean, bi piezatan, artisten gogoeta eta galderak

Ostemponuna.com-en paratu dute material guztia; bost urtez utziko dute entzungai, eta gero ezabatu egingen dute. Itsasoko biztanleen konpainia ederrean geldituko da altxorra

Goian, Ander Fernandez eta Imanol Espinazo, proiektua aurkezteko egin zuten bideoan. Behean, mezuen beste grabazio saio bat. OSTEMPO NUNA

Kontatu digutenez, elkar-teak hiru hanka ditu: lantokia, kultur etxea (hemen sartzen dira tailer artistikoak: dantza, zirkua, antzerkia eta, aurki, arte plastikoak ere bai) eta taberna. Elkargune bat da hau, momentu politik pasatzeko.

Espazioa alokatzen dute elkarlana eta ekitaldiak egiteko. Herriko elkarteei irekia dago, doan, haien proposamenak aditu eta batera aritzeko. «Helburua da jendea kultur kontsumitzaile huts izatetik aktore izatera pasatzea; hori da zailena», azaldu dute.

Hilabetero egitarau bat osatzen dute eta ostiral arratsaldero irekitzen dute ostatua. Heldu den ostiralean, adibidez, irakurle taldea elkartuko da, “Carrefour” antzezlana eskainiko dute, eta DJ Miqkaël disko jartzailearekin dantzatuko dira. Ekainean eta uztailean proposamen pila bat dute eta denak gonbidatuta zaudete etortzera.



*Begira, gure mundua...
Oraintxe gelditu da tren bat, beharbada Paristik dator...
Nahi nuke guztiak ni bezala libreki ibiltzea alde batetik bestera, mugarik gabe...
Mila pott...
Laster arte!*

*Zortedun pertsona zara.
Pertsona esan dut, baina esan nezake animalia, landarea, ameba, unikornio fantastikoa...
Zera kontatu nahi dizugu: zeren beldur garen, zerk eragiten digun barrea.*



Gorka ETXEBARRIA DUEÑAS
Historialaria

Errespetagarritasuna eskuz aldatzen ari da

osasuna/hiriaren lo(r)aldia / hezkuntza

3 BEGIRADA:

Irakurketa feminista gehitzeari esker, historiako garaien inguruko irakurketak izugarri aberastu dira azken hamarkadetan. Esaterako, emakume historialariak XIX. mendeko langile mugimendua ikertzera hurbildu zirenean, ordura arte nabarmendu ez ziren alorrak azpimarratu zituzten. Azaldu zuten nolako zailtasunak

izan zituzten langileen ordezkariak haien burua errespetagarri aurkezteko burgesen aurrean. Izan ere, XIX. mendeko burgesek langileak erdi-animalia bezala irudikatzen zituzten. Zer nolako jendilajea zen emakume eta haurrekin batera fabriketan lan egiten zuen hura? Emaztea etxean mantentzeko gaitasunik ez zuen gizona?

Burgesiaren ikuspegian, gizontasuna errespetagarritasunarekin erabat lotuta zegoen. Gizonezko langileak, haien familiarian aitaren botere ekonomikoa ziurtatzeko gai ez zirenak, ez ziren gizon errespetagarriak. Are gehiago, emakumeen eta haurren lana mugatzea irudikatu zen, urteetan zehar, langile mugimenduaren lehen arrakasta bezala.

Klase borrokak egunerokotasunean etengabe egin behar duen negoziazio kulturean, gizonezko langileen soldata duinak bermatzeko modua izan zen hura. Burgesiaren termino kulturetan aritu beharra. Bidebar, jakin badakigu emakumeek jarraitu zutela lanean XIX. mendearen bukaeraz geroztik ere. Izan sektore industrial feminizatuetan edo lantegietarako etxetik egiten zituzten enkarrietan (noski, etxeko lanen zama ere beren gain hartuta).

Azken hauteskundearen aurretik eta ostean ere jeltzaleek errespetagarritasunaren mezua era-

bili dute, errespetagarri ez omen direnen aurrean. «Son los de la mani, aunque se vistan de Armani». Haiekin hitz egin daitekeen arren, jarraitzen dute, finean, erdi-animaliak izaten. EH Bilduko emakumeen aurka ere mezu esplizituak erabili dituzte: kopeta-ilea motozerraz mozten dutela, Gasteizko alkatetzarako hautagaia batek dakiela nor den...

Non eta errespetagarri ez omen diren horiek, lehenago langile mugimenduarekin gertatu bezala, herritarren zati zabalaren babes eskuratu duten. Errespetagarritasunaren izenean zenbait aldaketa egin arren, egia baita lehen begiradan EH Bilduk ez dirudiela gainontzeko hautagaitzen oso-oso ezberdina, benetan norbait errespetagarri egiten duena bere lana delako. Ezkerreko subiranistek haien identitatearen oinarrian ondo egindako lana dute eta lanean tinko jarraitzeko konpromisoa. EH Bilduren hautagaitzek langile auzoetan izan duten babes zabala oso esanguratsua da.

Jeltzaleek eztabaida maila kulturalera mugatu nahi izan izan duten arren, errespetagarritasuna eguneroko bizitzaren hobetzean eta etorkizuneko ortzi-mugan beste modu bateko gizartea posible dela barneratzean baitago. Hauteskundearen ondoren, errua hain zuzen ere, langileei bota baitiete. Nola izango da herrialde bat errespetagarria langileak etengabe protestetan ari bada? Eskerrak ez duten sektore pribatizatuetan ere greba egunetako zerbitzu minimoak %100era igotzeko aukera. Baina, azkenean, errespetagarritasuna lanaren eta duintasunaren aldera pasatzen ari da. •



Ilustrazioa: JONBI EGURTZEGI

{ koaderno } Mijo LIZARZABURU

Feminista arrazisten kritikak: ordaindutako lanetik haratago

Neoliberalismoak mugimendu feministaren baitan lantzen den gatazka oro soldata arrakalara eta kristalezko sabaira murriztu nahi du. Emakumeek enpresa handien lidergoa hartzeak automatikoki gizonak haien amonen ipurdia garbitzen jarriko balitu bezala. Feminismoaren proposamenek ertain klaseko emakume heterosexual zuriarengandik haratago joateko beharra azpimarratzen dute. Norabide horretan sakontzeko, gaurkoan Bell Hooks feminista afro-estatubatuarren hitzak gogorarazi nahi ditut, kontuan izanda, Hooksena ikuspegi bat dela gero eta indar handiagoa duen feminismo antirrazistaren olatu anitzean.

Hooksek feminismoa ertain klaseko emakume zurien mugimendu politikoa izatetik haratago pentsatu nahi zuen, uste zuen bere garaiko feminismoaren borroka tematuegi zegoela lan asalariatuaren esparruan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bilatzen: «emakumea askatzeko giltzarria enplegua dela azpimarratzeak eragin zuen ekintzaile feminista zuri askok iradokitzea lanean ari ziren emakumeak jada askatuta zeudela» (Hooks, 2017).

Patriarkatu kapitalistaren dimentsio bat da ordaindutako lanean bizi dugun zapalkuntza, baina ez bakarra. Feminismo beltz estatubatuarrek 60ko hamarkadan argi utzi zuen zapalkuntza ororen aurka borrokatzen ez zuen feminismoa ez zela guztiontzat, ezta emakume guztiontzat ere. Hooksek mugimendu feminista zuria kritikatzeko zuen bere bizitzan bertan ikusi zuelako, emakume beltzek AEBetako gizartean zegoen arrazakeria kritikatu zutenean eta arrazakeriak teoria eta praktika feministaren baitan zuen lekua azpimarratu zutenean: «emakume zuri askok, buru hutsez, bizkarra eman zioten sororitatearen ikuspegiari, beren buru eta bihotzak itxiz». (Hooks, 2017).

Arraza eta klasearekin lotuta zeuden arazoaren aurrean begiak ireki zituzten emakume zuriek eztabaidagai berriak sartu zituzten feminismoan; adibidez, zalantza zuten etxeko lanerako inor kontratatu behar zuten edo ez, ez baitzuten nahi lan hori, historikoki derrigortu zaien bezala, haien gain hartu, baina ezta haiek baino

pribilegio gutxiago zituzten emakumeen zapalkuntza eta desumanizazioan parte hartu ere. Dirudienez, gizonek etxeko eta zaintza lanen ardura hartzea ez zen aukera bat, a zer sorpresa!

Ertain klaseko zurien pribilegioak mantendu arren, etxeko lanaren eta arrazaren inguruan hausnarketa abiatu zuten «emakume horietako batzuek aliantza positiboak sortu zituzten haien eta kontratatzen zituzten emakumeen artean, eta, ondorioz, aurrera egin zuten injustiziaren testuinguru zabalago batean». (Hooks, 2017). Baina hori ez zen nahikoa emakume beltzentzat, haiek argi baitzuten haien lekua ez zela feminismoaren protagonista izan behar zuten emakume zurien etxeko lanen ardura hartzea, feminismoa emakume guztiontzat izan behar zen eta horretarako, emakume zuri eta arrazializatuen arteko horma eraistea derrigorra zen: «emakume beltzen erresistentzia eta protesta iraunkorrak, gure ahizpa zuri erradikalekin batera, beharrezkoak izan ziren horma eraisteko». (Hooks, 2017).

Hooksen feminismoak aniztasunarekiko arreta dakar, bere idatziekin argi erakusten dute nola aniztasun horrekiko ardurarik hartzen ez zuen feminismo zuria, langile mugimenduak edo gizon beltzentzat soilik borrokatzen zuten eskubide zibilen aldeko borroka emakume beltzak baztertu zituzten. Bere hitzetan, «emakume beltzen gainean bi ahoko arma bat zegoen: emakumeen sufragioa babesteak feminista zuriekin aliatzea zekarren, haiek publikoki arrazakeria adierazi zuten arren, eta gizon beltzen sufragioa defendatzeak, berriz, gizarte ordena patriarkal bat babestea zekarren, ahots politikoa ukatzen ziena» (Hooks, 2020).

Horrek feminismoaren oinarri erradikalak estaltzen zituelakoan zegoen bera eta lehen lerroa ekarri nahi zuen patriarkatua sakontasun handiagoaz gainditzen zuten gizarte osoaren berrantolaketa antisexista. Hori guztia kontuan hartuta, autore horrek bere pentsamenduen bitartez feminismoa bultzatu zuen gizon eta emakumeen eskubide eta aukera berdintasunetik haratago joatera eta zapalkuntza forma ororen aurka borrokatzera. Arrazista, putafobia, klasista, kapazitista, lodi-fobia, transfobia edo liberala bada, ez delako guztiontzako feminismoa. •

«Beti nabil zerbaiten bila, baina finean, nire helburua zein da? Pertsona normal bat izatea»

Ekainean eta uztailean zehar, gitarra akustikoa hartu eta bakarkako kontzertuak ematen ibiliko da Gari han eta hemen: Garazi, Burgi... Oraindik data guztiak lotzeke ditu. Kontzertu intimoagoak izango dira, «komite txikian», arnasa hartzeko, azken urtebete hau nahiko intentsua izan zaiolako: bukatu berri du, Maldanbera taldearekin, "Gari&Maldanbera: Zuzenean 2022" (Elkar), bere zuzeneko lehen albuma eta bakarkako ibilbidearen errepa-soaren bira, eta, ia modu paraleloan, 2022an Hertzainak taldearen agur kontzertuak egin zituzten, zauriak eta oroitzenak ixteko kontzertu terapeutiko haiek. Ortzi-mugan, 2024an, disko berria du.

Oholtza gainean egoteko manera propioa duzu, oso zurea dena. Deigarria egiten da, ez dituzulako kantak aurkezten, bata bestearen atzetik jotzen dituzu... Bitxia egin izan zait, eta galdera sortu zait: horren atzean badago istoriorik?

Bada, tara psikologikoak, beldurrak eta gero, dohain hori ez dudala ere bai. Hori landu egin behar da. Eta gero eszenan egotea niri pilo bat kostatzen zait. Zergatik? Elkarrizketak egitea ere kostatzen zait, oso urduri jartzen naiz. Hone-lakoak badira hobe, baina zuzenekoak badira... bat-batean kolapsatu egiten naiz. Eta badut horrelako arrasto bat non argi ikusten den zein bizimodu izan dudana hainbat urtetan: ni politoxikomanoa izan

GARI

ABESLARIA

lkusleak popatik hartzera bidaltzen zituen Gari haren (Ibon Garitaonandia, 1963) eta gaur egungo musikari zintzoaren artean jauzi handia dago. Horren adibidea, hemen.

Amaia EREÑAGA



naiz hamabost urtez, eta horrek ondorioak ditu. Nahiz eta fisikoki ondo nagoen, eta nahiz eta buruarekin ere normalean nahiko ondo defendatzen naizen, izaten ditut boladak non ideiak ditudan hemen [burua seinatu du keinu batekin] baina ezin ditudan ahoskatu. Eta oso urduri jartzen naiz.

Orain bakarkako zuzenekoetan "terapia" moduan hasten naiz hitz egiten eta kontatzen. Lehenengo kantarekin izaten da normalean, zeren eta oso terapeutikoa izaten baita "Amets" kanta; horrekin hasten naiz. Bakoitzak egingo dio bere irakurketa propioa, baina nik kanta hori egoera oso latz batean idatzi nuen. Oso harapatuta nengoen, jonki total, jota nengoen eta oi-hu bat egiteko kanta izan zen hura: «Baten batek lagundu beharko dit hemendik ateratzen ni ez bainaz gai». Eta amets hori amestu nuen, laguntza oi-hu bat izan zelako. Oraingo bakarkako zuzeneko emanaldietan "Amets" lo-kanta bezala jotzen hasten naiz, gitarra akustikoarekin, eta iruzur egiten diot nire buruari: hau da lo-kanta bat [irribarrea].

Duela gutxi Athleticcek, Osasunaren aurkako derbiaren bezperan, erabili berri du sare sozialetan. Bitxia da zenbat irakurketa izan dezakeen kanta batek.

Horretan datza-eta musikaren magia: zertarako balio dute kantek, nork daki? Bat-batean sortzen dira horrelako testuinguruan eta begira zein ondo geratzen den esaldi hau edo lelo hau edo doinu hau... Zen-

bat kantarekin pasatu izan da hori? Adibidez, Bruce Springsteen-en "Born in the USA" kantarekin: entzun genuenean «alegatu nazionalista bat da» esan genuen, baina beste istorio bat kontatzen du. Bakoitzaren irakurketa propioa da... Magia hor dago.

Zure ibilbidean ez duzu sekula musika utzi; zure bizitzaren une guztietan, baita gorabeheratsuenetan ere, beti izan duzu lagun. Musika terapia legez sentitzen duzu?

Bai, eta adibide bezala, ni Gizakia Helburu-n sartu nintzenean, handik bost hilabetera, esango nuke, mahai gainean jarri nuen berriro ere musikara bueltatu behar nuela. Eta jasoen erantzuna hau izan zen: «Ahaztu ezak musika», dena lotu egiten zelako hor. Oso temati jarri nintzen eta, prozesuan nengoela, lortu nuen. Eta egia da musikak lotu egiten ninduela mundu beltz horrekin, baina badu beste alde bat, eta beste horri oso ondo heldu diot. Gainera, musikak horixe du: musikak magia sortzen du eta indartu egiten zaitu. Artistok, nahiz eta jota edo gaixorik igo oholtzara, bat-batean barneko indar hori sentitzen dugu eta ahaztu egiten zaigu bestea.

Ez dakit ohartu zaren, baina kuxkuxeatu egin dut sareetan eta Spotify-n jarraitzaile asko dituzu.

Ez dut ezer begiratzen.

Ez diezu kasurik egiten sare sozialei? Ohartu naiz facebook oinarritzko bat duzula, baina twitterrik ez.

Ez, ez, nik sare sozialik, ez. Ez daukat whatsapp-ik, ez dut ezer jakin nahi. Instagram eta facebook-a nire ilobak eramanen ditu, eta nik ez ditut ukitzen.

Zer egin dizute?

Ez dut jasotzen ezer positiborik hortik. Hertzainak taldearen itzulerarekin jaso dugu bat-batean jendea oso urduri jartzen zela sareen kontuekin [harridura keinua]. Bost axola niri; niri axola zait nirea ondo egitea, eta ni indarrez azaltzea, eta nik oso garbi izatea zer nahi dugun transmititu, zer esan nahi diogun publikoari eta nola egin bat publikoarekin. Gainerako guztia... Nik jakin nahi dut nire liturgia egokia ote den publikoarekin bat egiteko. Baina ez dut nahi apaiz bat bezala irten... Hori egiten baikenuen 80ko hamarkadan.

Nik hemen, une honetan, jotzen badut, esaterako, "Esperantzara kondenatua" bezalako kanta positibo bat, modu batera ateratzen da, baina parean pertsona bat edo bi edo 10.000 lagun egon, kantak beste dimentsio bat hartzen du, eta hori oso inportantea da. Nolabait, orduko gure planteamendua oso ondo zegoen, zeren eta guk hau adierazten baikenuen oso ondo: «*Somos incorruptibles, tenemos muy claro hacia dónde vamos, qué buscamos... ¡Os queremos dar de hostias, hijos de puta!*». Baina zer gertatzen zen? Feedbacka ematen zen, gure jarrera oso gogorra zelako eta publikoak hori bera nahi zuelako. Txistuka hartzen gintuzten eta «putase-meak» erantzuten zigutenean zera adierazi nahi zuten: «Popatik gizarte hau!». Beste komunikio mota bat zen hura.



Argazkiak: Aritz LOIOLA / FOKU

IBILBIDEA Dozena bat disko sortu ditu Hertzainak utzi zuenetik igaro diren hiru hamarkada hauetan. 2024an, berria.

Gaur egun feedback hori gauzatzeko modua aldatu da.

Noski, orain, hainbat urte pasatu ondoren, beste komunikio bat behar duzu. Baina inportantea izan zen azterketa hori egitea, aldeztetik jakiteko ere bai Hertzainak taldean gure onena ez zela bakarrik kanta horiek jotzea, baita kanten emozioak beste puntu batetik transmititzea ere. Ez gara 80ko hamarkadakoak, beste gauza bat gara. Eta gaur egungo egia nolabait jaso egin behar dugu kantetan adieraz-

teko, eta nik uste dut oso lan dotorea egin genuela.

Ziperrak abiatu zenuen ibilbidea, 1983. urtean. Gero Hertzainak mitikoan parte hartu zenuen hamarkada batez, ondoren luzaroan bakar-kako lana egin zenuen eta berri ere, Maldanberarekin, formatu horretara itzuli zara. Zein garrantzi dute taldeek zure ibilbidean?

Taldea gehienbat familia osatzea da. Aspalditik garbi dut musika, garai batean, familia-

rekin eta gizartearekin apurtzeko erantzun bat izan zela niretzat; nolabait, halako jarrera gogor edo suizida bat, deitu nahi duzun moduan, osatzeko. Zer gertatzen da? Gero bizitzak eta esperientziak nolabait hainbat "amets" apurtzen dizkizula: ametsak diluitu egiten dira eta zure printzipio horiek kili-kolo jartzen dizkizu, eta orduan hasten zara aztertzen guztia beste modu batera. Adibidez, nik 80ko hamarkadan Hertzainak taldearekin egiten nituen elkarriketetan beti hasten nintzen titularrak ematen. Titularrak ematea oso erraza da, besteak kritikatzeko oso erraza delako. Zer gertatzen da? Roken izarraren estereotipo guztiak: sexua, drogak eta rock and roll-a. Aztertu nuen guztia eta esan nuen: «Banoa nire bizitza sortzera eta beste modu batean eraikitzen». Horretarako inportantea da drogak baztertzea.

Prozesu hori oso latza izan zen, baina oso inportantea eta baikorra ere bai, zeren eta hor bat-batean ikasi bainuen erabiltzen hainbat baliabide bizitzari beste ikuspuntu bat emateko eta norberaren bizitza eta norberaren askatasun pertsonal hori eraikitzen. Inportantea izan zen, adibidez, nahiz eta garai hartan nire burua beste planeta batean zegoen, Bernardo Atxagak esan zidana. Hertzainak desagertu ondoren, ni kalean nengoan, Gasteizen, Lou Reedek esan zuen bezala, «nire dealer-ren zain», eta Atxagak hain gaizki ikusi ninduen ezen kafe batera gonbidatu ninduen. Aritu ginen mintzatzen, eta gerora ere mintzatu gara hainbat gairi buruz: mintzatu gara drogaz, askatasun pertsonalaz, libreak izan behar dugula... Baina as-

katasun horren bila, rock and roll-etik, sexutik eta drogetatik paso egiten dut. Alegia, nik neure kantak kantatzen ditut eta banoa.

**Oholtza gainean duzun jarre-
ra hori «postureo» bezala irakur zitekeen, bada.**

Ez, ni ezkutu horren barnean sartuta nago oraindik, «ez nazazue jo» jarrera horretan. Eta prozesu horiek ez dira errazak izaten. Drogekin gertatzen den bezala: «Bi hilabete eman ditut zentro batean, gurasoek 200.000 euro ordaindu dituzte eta garbi nago», esaten dutenak bezala. Hori saltzen da. Prozesu horiek oso gogorrak dira, ordea, baina prozesu emozional guztiak izaten dira oso gogorrak eta luzeak. Nire-

tzat libre izatea eta bide bat eraikitzea oso inportantea izan da, eta beti esaten dut gauza bera: nik sentitzen dut nire bizitza beti irteera mar-
rran dagoela, beti zerotik has-
ten naizelako. Beti nabil zer-
baiten bila, eta zertarako? Nolabaiteko pertsonalitate normal bat eraikitzeko. Izan ere, finean, nire helburua zein da? Pertsona normal bat izatea [barreak].

**Hara! Horrekin jota utzi nau-
zu... Nork nahi du normala izan?**

Atzo esan nion emazteari: orain dena da zarata, hautes-
kundeetan gaudelako, eta ko-
lore guztietako politikariek zer egiten dute? Zarata. Baina kul-
turan ere, oro har, berdin. Ez

*«Aspalditik garbi
dut musika, garai
batean, familiarekin
eta gizartearekin
apurtzeko erantzun
bat izan zela
niretzat; nolabait,
halako jarrera
gogor edo suizida
bat, deitu nahi
duzun moduan,
osatzeko»*

bazara gauza zarata ateratze-
ko, jai. Eta horretarako, titula-
rrak behar dira. Eta zer gerta-
tzen da? Sartzen zara
Google-eko albisteetan eta
kulturan dena dira titularrak,
kakaztutako titularrak.

**Algoritmoen mende gaude,
hori argi dago. Algoritmoek
bideratzen gaituzte mota fin-
ko bateko musikara edo gaie-
tara. Baina hain zaila da beste
merkatuetan muturra sar-
tzea? Gogoan dut nola atera
zenuen diskoa gaztelaniaz,
beste merkatu batzuetara za-
baltzeko edo.**

Nik hori egin nuenean oso
gaizki nengoen. Oso-oso gaiz-
ki. Norbera gaizki dagoenean
edozer gauza egiten du, baina
egia da gaur egun, atzo, lehen

eta gaur, dena oso konplikatu
dela. Zergatik?

**Hizkuntza minorizatuekiko
edo beste musika ez estanda-
rrekiko interesik ez dago?**

Espainian, eta Euskal Herrian
ere bai, kultura musikala oso
eskasa da. Uste dut are eskasa-
goa izan dela, baina oraindik
ere oso eskasa da. Espainian
bide bakarra dagoela nabaria
da. Jazz mundukoak nola da-
biltza? Ez dago zirkuiturik, eta
zirkuiturik ez baduzu oso kon-
plikatu suertatzen da.

**Pandemiaren ostean kontzer-
tuen susperraldi bat izan zen,
baina ez dirudi zirkuitua bere
horretara itzuli denik. Nola
bizi duzu zuk musikaren
egungo egoera?**

Eta hemen, zer gertatu da? He-
men izan dugu horrelako for-
mula bat bere oihartzuna izan
duena eta bere bidea izan due-
na: gaztetxeak. Gaztetxeek
sortu zuten halako sare bat,
oso oinarrizkoa –eta zenbait
gairekin bat ez nator; esatera-
ko, sarrera guztiak 5 eurotan
jartzearekin–, baina hainbat
gauza oso ondo egin dira.

Baina, zer gertatu da? Orain
arte kulturak, Euskal Herrian
eta beste herrialde batzuetan,
halako ukitu ideologiko berezi
bat izan du, orain ez dagoena:
orain belaunaldi aldaketa ho-
nekin, “nos crujen por todas
partes”. Nik ikusten dudanean
artista bat Louis Vuitton jan-
tziekin, Prada markako zapati-
lekin eta abarrekin, harritzen
naiz, guk kontra egin baitiogu
horri guztiari. Badakigu ho-
rrek zer esan nahi duen: ez da
marka soil bat, baizik eta mar-
ka horren atzean dagoena.
Diskurtsoa hauxe da: «Nik
hau erabiltzen dut hemen sar-
tu ahal izateko». Nahi duzuna
esan dezakezu, baina sartu za-



ra dinamika horretan eta dinamika berri horietan ideologia diluitu egin da.

Noski, ni ez naiz ibiltzen neure kantetan aldarrikatzen. Nik emozioei buruz hitz egiten dut eta normalean nire gai erabiliak zeintzuk izaten dira? Mina, esperientzia pertsonalak, ibilbideari begirada bat ematea gehienbat berriro ere indarra hartzeko eta gauzak aldatzeko... Baina, batez ere, nire helburua zein da? Bakoitzak ikustea posible dela aske sentitzea eta askatasun pertsonal horretan nork bere burua erakitzea. Gaur egun Euskal Herrian ere ikusten da, ordea, talde inportanteenak zein itxura duten, zer saltzen duten beren irudiarekin, gaur egun dena baita twitterra, sare sozialak, bideoak... Orain kanta bat ez da bakarrik ateratzen audioan, baizik eta audioan eta bideoan. Eta bideo horiek zer nolako ukitua duten argi eta garbi ikusten da.

Ikusi zintudan facebooken Benito Lertxundiren kanta bat bertsionatzen. Pista bat izan daiteke 2024rako prestatzen ari zaren proiekturako?

Maldanberaren bira kontzertuetan hainbat musikariren bertsioak egin nahi nituen, zeren eta uste baitut inportantea dela, eta oso gutxitan egiten baita hemen beste adiskide musikal batzuen kanta bat hartu eta bertsioa egitea. Diskorako kanta berriak eta zelako giroa sortzea bilatzen ari gara.

Nola sortzen duzu? Letrek garrantzi berezia izaten dute zure lanetan, esaterako. Kontalari aparta zara. Zuk idatzi dituzu hainbat kanta, beste batzuenak ere erabili dituzu, ezta?

«Nik emozioei buruz hitz egiten dut eta normalean nire gai erabiliak izaten dira mina, esperientzia pertsonalak... Eta nire helburua zein da? Bakoitzak ikustea posible dela aske sentitzea eta askatasun pertsonal horretan nork bere burua erakitzea»


Orain, adibidez, Karmele Jaio, Iñigo Astiz eta Txuma Murugarrenekin ari naiz. Idatzi ditut kanta batzuk, oso politak, baina bakoitzaren prozesua oso desberdina da. Iñigorekin, Bilbon bizi baikara biok, gertutasun bat dago eta hainbat proiektu elkarrekin eginda koak gara; beraz, berak badaki norantz noan zentzu horretan. Karmele Jaiori deitu nion eta esan nion: «Begira, nahi nuke zeozer ikustea, ia aukera dagoen...». Bidali zizkidan hainbat testu eta ez nuen tonua hartzen, eta bat-batean beste bat bidali zidan: «Elurretan etzan nahi nuke besoak zabalik, etzan». Hortik aurrera, ostia, irakurrita bakarrik doinua hor dago. Osatua dago, oso kanta polita.

Txuma betidanik maite izan dut, eta gainera, badakit garai txarra pasatzen ari dela. Berekin elkartu nintzen Mutrikun. Eraman nuen gitarra eta portuan ginela, gitarra hartu eta, berak oraindik ez daki, baina geratu nintzen horrelako doinu batekin. Momentu hartan erabilitako doinua kanta berri horren oinarria da.

Ni neu ere ari naiz idazten, baina gero eta gehiago kostatzen zait: lehen ez nuen astirik; gorputza drogarekin asetzeko zen denbora. Esaterako, lehenengo diskoko “Zaharra zara Bilbo”, “Amets”... disko horretako kanta guztiak bi minututan eginda daude, di-da... Ez bainuen astirik, esan bezala. Eta horrela eginda daude. Orain, puff.

Denboraren kudeaketa desberdina da orain, agian?

Adin kontua izango da. Musikkalki baliabide gehiago ditut, eta lehenengo bulkada aprobetxatzen dut: hartzen dut gitarra, grabatu eta hor gelditzen da. Niretzat inportantea da gero hori erabiltzea, gero osatuko dut puzzlea ala ez, baina sortu den lehenengo inpresio hori mantentzen dut. Ez dago formula jakinik, baina mantentzen ari naiz hori, beste modu batera sentitzen naitzelako, zeren eta aprobetxatu nahi baititut momentu horiek. Yogurinha Borovak eskatu zidan kanta bat, eta esan nuen: «Nola kanta bat? Etor zaitez etxera eta bi ordu libre ditut». Bi ordutan, di-da, zirriborroa egina dago, kanta egina dago.



Lehen «round»-a

Joxean AGIRRE

Hitzek, hala esan ohi da, sentipenak adierazten dizkigute, gure barreneko sentimenduak kanporatzeko balio dute; hitzak entzunez edo irakurriz besteen bizitzetan sartzen gara eta haiekin batera sufritzen, gozaten dugu.

Zifrak, aldiz, hala esan ohi da, hotzak dira, neutroak. Haiei begira, lau zenbaktik gorakoak direnean zorabiatu egin gaitzake edo buruko mina eragiten diezagukete. Hala pentsatzen nuen nik ere hauteskunde gauean ohartu nintzen arte zifrek ere sekulako indarra dutela gure barruko bizipenak adierazteko. Ikusten nituen lau edo bost zenbakiko zifrak telebistaren pantailan edo portzentajeren bat eta bozkarioak hartzen zidan barrera edo zorion halako batek bihotza, sofatik altxatu eta «to!», esaten nuen eta txaloka hasten nintzen, futbolzale ohikoaren antzera.

Badakit porrotaren patura ohituta koen “poxa” dela hori. Bizitza erdia pasa generaman, bizitza osoa ia, EAJ-rikiko lehia etsian, familiako sestra horretan beti galtzaile izango ginela pentsatuz. Freudek esaten zigun, modu metaforikoan noski, aita hil behar genuela helduak izatera iristeko, baina zein zaila den aita hiltzea, hauteskundeak joan eta hauteskundeak etorri, irabazi egiten baitzigun.

Zenbat aldiz ez ote dugun irudikatu gure burua zahartzaroan, 90 urterekin esate baterako, bizkarra okertuta eta bastoi batekin ozta-ozta hankak arrastatuz, bufanda ziztrin bat lepoan, hauteskunde biharamunean egunkaria irakurtzen hasi eta ahapeka «orain ere irabazi zigutek», esaten.

Azken hauteskunde gauean, ordea, oskarbi une bat ikusi genuen. Ez dut esango aita hiltzera iritsi ginenik, bai-

na susto ederra eman genion, sustoa baino gehiago ere bai, pitin bat grogi, durduzatuta ikusi baikenuen. Andoni Ortuzar atera zen esaten nota hartzen zutela eta gogoeta egingo zutela. Nik gogo-jardunak astebetetzuz lutzatuko ziztutela irudikatzen nuen, Sabin Etxean bertan edo Loiolako Gogartetxean, zer pentsatua ez baitzitzaien falta, alafede!, baina zeinen azkar aspertu ziren gogoetekin, zeinen azkar suspertu ziren, bigarren egunerako ituna berregiten ari zirela iragarri baitzuten, lehenean jarraitu ahal izateko, ahal zuten lekuetan bederen.

Nik pare bat egun pasatu nuen batuketak eta kenketak egiten. Ez dut uste hainbeste batuketa egin dudarik etxea erosteko mailegua eskatu nuenetik. Ez dugu aitarik hil, baina diogun lehen *round*-a ez zela hain gaizki amaitu. •

Alkoholaz hausnarketa bat

Asier AIESTARAN

Ikasturte amaierako jaialdiaren hari-
ra atera da gaia guraso talde batean.
Bidezkoa al da eskola eremuan eta
eskola komunitate osoarentzat pen-
tsatutako festa batean alkohola saltzea
eta alkohola kontsumitzea –helduez ari
naiz, noski–? Zer eragin dauka, baldin
badu, alkoholaren presentziak/normali-
zazioak jaialdi horretan parte hartzen
duten gaztetxoaren artean?

Hasieratik onartuko dut erantzun bo-
robiliek ez daukadala, baina galdera egi-
teak berak eta hausnarketarako tarte bat

hartzeak aurrerapausoa suposatzen
duela esango nuke. Fokua apur bat za-
balduz, herri eta auzoetako jaiak bata
bestearen atzetik lehertzen hasiko diren
honetan, antzeko eztabaidak sortu dai-
tezke gure jai ereduaren inguruan. Zer
zilegitasun dugu gurasook, eta helduok
oro har, gazteei alkoholari –edo beste
droga batzuei– buruz hitz egiteko ga-
raian?

Erabateko debekuak ez dirudi irtenbi-
de burutsuena, horretan gehiengoa
ados dagoela esango nuke, eta jarrera

hedatuena erabilera “egokia” bideratzen
saiatzea da. “Egoki” kontzeptuari neu-
rria hartzea ez da erraza, ordea, eta hor-
txe hasten dira katramilak.

Ertz ugari dituen gaia da, ikuspuntu-
aren arabera galdera berriak eta kezka la-
rriagoak sortzen dituenak, baina berriz
ere hasierako ideia itzulita, uste dut
gakoetako bat norbere ardurak onartzea
dela. Gaztetxo horiei zer esango diegun
bezain garrantzitsua dela norbere joko-
bidez hausnartu eta izan ditzakeen on-
dorioak asumitzea. •



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

«True crime»-tik fikziora: inspirazio iturri agorrezina

2015. urtera arte batez beste hiruzpatalau *true crime* estreinatzen ziren urtean. 2016an 15era igo zen kopurua, eta 2022an, aldiz, ia 70 estreinatu ziren.


Zergatik gorakada hau? Zaila da zehaztasunez jakitea, baina ziur nago bi dokumentalek zerikusi handia izan zutela: “Making a Murderer” eta “The Jinx”. Biak 2015. urtean estreinatu ziren, eta ordura arte era honetako dokumentalek izan ez zuten arrakasta, kritikarien adostasuna eta oihartzun mediatikoa lortu zuten, sare sozialak ia sutan jartzeraino. Plataforma digitaleko ikustaldiak ere itzelak izan ziren eta biak ala biak mugarri izan ziren genero zirrargarri honetan. Etekinak eta harpidetzak bereganatzeko helburuz, geroztik horien ekoizpen kopurua nabarmen igo da, Netflixen bereziki. Horren erruz eduki kaskar ugari ere estreinatu da eta kosta egiten da ganorazko lanak topatzea. Hori bai, hainbeste dokumental sortu dira, ezen fikziozko gidoiak idazterako orduan inspirazio iturri itzel bihurtu diren.

A Friend of the Family

SKYSHOWTIME

“Abducted in Plain Sight” dokumental harrigarrian azaltzen dena fikziora pasatzea zaila zirudien arren, lan txukuna osatu dutela iruditzen zait. Broberg familiaren isto-

Dokumental formatuan benetan gertatu diren krimenak aztertzeari «true crime» (benetako krimenak) esaten zaio. Azken urteotan, azpigenero horren gorakada nabarmena izan den arren, istorio horiek ardatz hartuz sortzen diren fikzioei jarri nahi diet arreta eta nola gidoiak idazterakoan, onerako zein txarrerako, inspirazio iturri agorrezin bihurtu diren.



rio bizarro eta beldurgarri honen 12 urteko alabaren eta bizilagunaren artean gertatutakoa azaltzen du. Benetako kasu batean oinarritzen dela jakingo ez bagenu, inolako zentzurik ez duen gidoia osatu dutela pentsatuko genuke, baina zoritxarrez hau guztia gertatu egin zen, ez sinesteko modukoa.

Seriearen erritmoak eta istorioak pixkanaka egiten dute aurrera, eta horri esker, garapena oso ongi egituratua dagoela uste dut. Su motelean koinatzen den egitura horri esker, espazioak eta pertsonaiak oso ongi kokatzen dira eta era honetako abusuak egun batetik bestera gertatzen ez direla erakusten du.

Jake Lacy aktorearen lana bereziki nabarmena iruditzen zait, ezinbesteko garapen horretan guztian.

Love & Death

HBO

Jatorrizko istorioaren moldaketa David E. Kelleyk (“Big Little Lies”) egin izana nahikoa berme iruditzen zait telesaila ikusten hasteko. Aktore protagonisten artean, gainera, Elizabeth Olsen eta Jesse Plemons izanda, zer esanik ez. 80ko hamarkadan girotua, bi bikoteren benetako istorioa kontatzen du: Montgomerytarrak (Candy eta Pat) eta Goretarrak (Betty eta Allan). Texasako herri txiki batean bizi dira eta itxuraz, behintzat, lagun onak dira. Senar-emazteen arteko desleialtasun batek, ordea, eztanda eragingo du. Zazpi ataleko miniseriea da, bi zati nahiko nabarmenetan banatua. Lehen hiru kapituluetan, pertsonaiak aurkeztu eta *af-fair* horren nondik norakoak azaltzen dira. Laugarrenak krimena azaltzen du eta azken hirurek gertatutakoa, izandako ondorio emozionalak eta gertaeraren ondorengo epaiketa erakusten ditu.

Spoilerra izan gabe ezinezkoa egiten zait hainbat xehetasun azaltzea; beraz, ez naiz gehiegi luzatuko. Seriearen estilo bisualak eta, batez ere, tonuak David E. Kelleyren beste ekoizpen batzuk gogorarazi dizkizate; “Big Little Lies” be-

ra, esaterako. Izan ere, alde batetik, AEBetako gizartearen handikeria eta elkarrekiko itxurakeriak eta faltsukeriak erakusten dituelako, tonu ironiko eta umoretsu baten bidez. Eta bestetik, hori guztia suspense generoaren iluntasunarekin uztartzen duelako. Hasieratik antzematen dugu perfekzio horren ostean zer-bait iluna iritsiko dela.

The Jeffrey Dahmer Story

NETFLIX

Milwaukeeeko munstroaren istorioa azaltzen duen telesail iluna eta deserosoa. AEBetan, 1978-1991 artean, Jeffrey Dahmer izeneko serie-hiltzaileak burututako hilketa beldurgarriak ardatz dituena. Gaizkia pertsonaien bidez erretratatzea lan liluragarria iruditu zait beti. Ikusle modura, benetan existitu den (ala ez den) pertsonaia ilun eta beldurgarri baten garapenaren testigu izatea itzela iruditzen zait, baina baita arriskutsua eta oso zaila ere. Hamar ataletan horrelako munstro batekin empatia sentituz gero, eremu oso ilunetan sartzeko aukera egongo litzateke zuzendarien aldetik eta moralki zalantzagarria izango litzateke trataera hori. Aldiz, lehen segundotik pertsonaia hori nazkagarria eta jasanezina egiten bazaigu, ez ditugu bi atal ere iraungo telesaila ikusten. Ryan Murphyren abileziarik handie-



na justu erdibidean kokatu izana da; hau da, pertsona mespretxagarri, ilun eta oso krudela dela une oro erakusten duen arren, bere gizatasunaren zertzelada txiki batzuk ere erakusten dizkigu –aitarekin duen erlazioa, garai hartan homosexuala izateak zer suposatzen zuen, jasan zuen barkardakea...–, eta bien arteko konbinazioari esker sortzen den enpatia (oso-oso) txikiaz lagunduta guztiz eramangarria egiten du telesail osoa.

Nabarmentzeko beste alderdi bat biktimei ahotsa eman izana da. Izan ere, era honetako *true crime* askotan normalean hiltzailearengan zentratzen dira soilik eta hark egiten dituen krimenen inguruan morboa eragitean, biktimen izen-abizenak bazterrean utzi

ta. Serie hau, berriz, biktima horietako batzuegan zentratzen da guztiz, eta haien familia, bizilagun eta lagunen bidez haien testigantzen lekuko bilakatzen gara.

The Staircase

HBO

True crime dokumentalen zaleontzat, Jean-Xavier de Lestraderen “The Staircase” (2004) klasikoa da, zalantza izpirik gabe, generoaren barruan maisulana. Bi proposamenak ikusteko gogoia baduzue, lehenik fikzioarekin hastea gomendatu nahi dizuet.

2001eko abenduan, polizia Michael Peterson idazlearen deia jaso zuen. Zioenez, bere emaztea konorterik gabe ze-

goen Ipar Carolinako bere etxean, eskaileretatik behera erori omen zelako. Minutu batzuk geroago berriro hots egin zien, emakumea hilda zegoela esateko. Antonio Camposek sortutako fikzio-telesail hau kasu horretan gertatutakoa azaltzen saiatzen da. Horretarako, lehen mailako aktore zerranda erabili du: Colin Firth, Toni Collette, Juliette Binoche edota Michael Stuhlbarg, besteak beste.


Telesaila bikoteen eta familien sekretuei eta gezurrei buruzko azterketa psikologiko sakon eta liluragarria iruditzen zait. Fikzioaren elementuez baliatuz, ezin hobeto pantaillaratu du Camposek istorio hau, interpretazio lanez harago, muntaketan eta egitura narratiboan indar handia jarrita.

«El caso Asunta» eta «El cuerpo en llamas»

NETFLIX

Oraindik estreinatu ez diren arren, interesgarria iruditzen zait Espainiako bi adibide hauek aipatzea, jatorrizko dokumentalak bikainak iruditzen baitzaizkit: “Lo que la verdad esconde: El caso Asunta” eta “El crim de la Guàrdia Urbana”. Lehenengoak Asunta Basterraren kasua aztertuko du; 2013ko irailaren 22an, A Coruñaeko Teo herriko mendi bide batean 12 urteko neskatoren baten gorpua aurkitu zuten. Justiziaren ikuspegitik, Asuntaren gurasoak, Alfonso Basterra eta Rosario Porto, izan ziren hilketaren errudunak. Fikzioaren protagonistak Candela Peña eta Tristán Ulloa aktoreak izango dira.

Bigarrena, bestalde, “El cuerpo en llamas”, Crims dokumental sorta bikainaren barruan topatu daitekeen “El crim de la Guàrdia Urbana”-ren egokitzapena izango da. Izen horrekin ezagutzen da Pedro Rodriguezen hilketa. Bartzelonako Udaltzaingoko 38 urteko agente bat zen Rodriguez. Foixeko urtegitik gertu haren gorpu kiskalia aurkitu zuten guztiz erreta zegoen auto baten barruan. Bi telesailak aurten estreinatuko dira.



WHEN THEY SEE US

NETFLIX

1989ko apirilaren 19an, Trisha Meili izeneko emakume bati eraso zioten New Yorkeko Central Park ezagunean; bortxatu, jipoitu eta sasi artean abandonatu zuten. Ordu batzuk lehenago, 14-16 urte bitarteko gazte batzuk –beltzak eta latinoak– parke berean ari ziren harriak botatzen, txirindulariei iseka egiten eta antzeko gaiztakeria txikietan.

Gazteak bihurrikeria txiki horiengatik atxilotu zituzten, baina polizia esku artean kasu bereziki mediatikoa zuela konturatu zenean –Trisha Meilirena, alegia–, froga gehiegirik izan gabe ere, bost gazte horiei emakumezkoaren kontrako eraso basatia leporatu zieten.

Horrela hasi zen Central Parkeko Bosten amesgaiztoa: Kevin Richardson, Antron McCray, Raymond Santana, Yusef Salaam eta Korey Wise, New Yorkeko justiziaren historian, inoiz izandako kasurik polemiko eta arbuigarriena. AEBetako sistemaren arrazismoa eta ustelkeria dira telesailari bereziki sostengua ematen dioten bi zutabeak, baina baita, egiazkoa izan ala ez, nola AEBetako gizartea kontakizun

naren harrapakin bilakatzen den ere.

Kontakizun hori pantaila txikira eramateko, lau zatitan banatu dute eta bertan galdeketa gaia, epaiketa, erreformatoriotik pasatu zireneko urtea, baita horietako batek –Korey Wise– kartzela barruan bizi izan zituen urte beldurgarriak ere islatu dituzte. Gizarte kritika burutsuari, estetika boteretsuari, narrazio eraginkorrari eta interpretazio bikainei esker, ekoizpen hau Netflix-ek estreinatu duen telesail onenatarikoa dela esango nuke.

The Acts

HULU

Patricia Arquette eta Joey Kingeren interpretazio lan ikaragarriari esker eta Münchhausens sindromea ardatz hartuta, benetako kasu batean oinarritutako istorio honekin zur eta lur geratuko zara. Gaingiduta, hunkituta, beldurtuta, txundituta eta harrituta amaituko duzula ohartarazi nahi dizut. Istorio makabro eta lazgarria da. Erantzuteko oso zailak diren galdera asko geratuko zaizkizu garunean. Jatorrizko istorioa “Mommy Dead and Dearest” (HBO) dokumentalean topatuko duzue.



EFTERFORSKNINGEN

APPLE TV +

Copenhage, 2017ko abuztua. Poliziak Kim Wall izeneko kazetari suediararen desagertuaren salaketa jaso du. Berari buruz dakigun azkena: jabea elkarrizketatzeko asmoz, itsaspeko batera igo zela. Handik ordu gutxira, itsaspekoa hondoratuta aurkitu zuten eta kapitaina erreskatatzea lortu. Ez dago, ordea, kazetariaren arrastorik, ezta froga erabakigarrikerik ere, eta adierazpenak oso kontraesankorrak dira. Hortik aurrera kasu misterioitsu horren ikerketaren xehetasunetan murgiltzeko aukera

ematen du telesailak, baita, jakina, “Into the Deep” dokumentalak ere. Fikziozko moldaketa “Borgen” filmeko gidoilariaren eskutik iritsi da. Ez pentsa, ordea, akzio-thriller frenetiko bat ikusiko duzunik. Ikuspuntua edota sortzaileen intentzioa ez baita “errudunaren bila” formula erabiltzea, polizia ikerketa neketsu eta korapilatsuan zentratzea baizik. Kasu sendo bat eraikitzeko frogak behar dituen fiskalaren, erantzun bila dabiltzan gurasoen eta titularren gose diren komunikabideen presiopean aurrera egiten ari den ikerketan. Interesgarria eta nahiko harrigarria.





Arantxa Urbe - @arantxaurre
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Ebaluazioa ikasteko aukera balitz

Notarik ez balego ikasiko ote lukete gure ikasleek? Frogatu gabeko ustea da ikasleek ez dutela ikasten notarik ez badago.

Galderak zalantza sortu badizu, zortekoa zara. Izan ere, zalantza oso interesgarria da ikuspegi pedagogikotik, dena egiazkotzat ez ematea. Beste mundu ikuskera litzateke, kritikotasunarekin zerikusia duena. Zalantza saiakera-akatsa ekiteko eraren oinarria da. Akatsa, beraz, ikasteko aukera gisa hartu beharko genuke, ikasten laguntzen baitigu. Ondorioz, duen balioa eman beharko genioke hezkuntzan.

Askotan, ordea, ebaluazioaren zioa akatsak aurkitu eta zenbatzea bilakatzten da. Baina ebaluazioa ez da erabaki tekniko soilik, badu inplikazio etikoa, pertsonen bizitzekin jolasten dugulako. Etika da hezi eta doktrinatzearen arteko marra fina. Nola adierazi akatsa epaitu gabe, nola ebaluatu, finean, epaitu gabe, gure helburua ikaslea/pertsona salbatzea bada eta ez hura suntsitzea?

Eskoletan ikaslea benetan ardatz eta protagonista izango duen metodologia nahi badugu, lehenik Ebaluazioa aztertu beharko dugu. Ebaluazioa ikaskuntza gisa ikusi eta ikasleek aldaketa horren balioa senti dezaten; prozesuak eskola komunitate osoaren egitasmoa izan beharko du, ezinbestez.

Ebaluazioa aldatu beharko genuke erabat inklusiboa izateko. Errotik aldatu beharko genituzke, era berean, etxekoekin ditugun harremanak. Hala, etxeetara ebaluazio gisa bidaltzen ditugun txostenentzat “informe” ordez beste hitz bat asmatu beharko genuke, “partekatzearekin” zerikusi handiagoa duena. Beharrezkoa da “etxekoak informatzea” ikus-

pegitik “etxekoekin partekatzea” ikuspegira pasatzea. Aldaketak oinarri sendoa izan dezan, haiekin oso ongi lan egin beharko dugu; guk gelako lanarekin soilik ezingo dugu aldatu. Praktika interesgarriak garatu zituzten eskola gehienek pandemia garaian; bidean ahaztu ditugunak, gehienak, zoritxarrez.

Ebaluazioa bera jopuntuan jarritz, ez luke zentzu handirik ikasle guztiek egun eta une berean beren burua proban jartzeak, ez dago-eta une finalistarik. Horrek zerikusi handiagoa du gure antolaketarekin beren beharrek baino. Bestalde, ikasturtean zehar egin ohi diren hiru ebaluazioek ez lukete zertan helburu bera izan.

Lehenengo hiruhileko ebaluazioa diagnosi gisakoa izan daiteke; ikaskuntzaren oinarriekin zerikusia duten alderdiak azter ditzakegu etxekoekin. Ebaluazioa, batez ere, kualitatiboa izanik.

Bigarren hiruhilekoan, ikasleen parte-hartzearekin osatutako txostena izan daiteke, azpimarra jarrita ordua arte zer ikasi den eta zer eta nola hobetu daitekeen.

Hirugarren hiruhilekoan, kalifikazioak jaso daitezke. Lortutako ikasketak maila jasoko lukeen hezitzailearen txostena, ikaslearekin adostua. Ez da esanguratsua jada ez dagoelako aldaketa aukerarik.

Komunikazio horietan guztietan, “baina” betiere eraikitzaileagoa den “eta”-ren ordez aldatuko bagenu, are sakonagoa litzateke gure ekarpena.

Koka dezagun orain gure burua ebaluazioan, ebalua dezagun gure jarduna: zer egin dezaket nik haurrak bere buruari artean egin ez dizkion galderak egin diezazkion?


Ebaluazioa horrela ikusita, oro har, tresna bat baino gehiago ikasleentzat eta hezitzaileentzat hazteko aukera bat da. Balia gaitezen ebaluazioaz, bada, denek ikasteko. •



Ebaluazioa aldatu beharko genuke, erabat inklusiboa izateko. GAUR8

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



AUTORE EZEZAGUNA. ESPAINIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA.

GERRATIK IHESI DEUSTUN, FRANKISTAK BILBON SARTU ETA GUTXIRA

1937ko ekainaren 18ko gauean, frankistak Bilbon sartzear zirela, Leizaola buru zuen defentsa-batzordeak itsasadarreko zubiak suntsitzea erabaki zuen. Hilaren 19an frankistak Bilbon sartu ziren. Artikuluak erakusten duen irudia ondorengo egunetan egin zen. Eskuinean, Deustuko Unibertsitateko hesia ageri da, eta errepide zaharrean, Areetara zihoan tranbiaren errailak. Atzealdean, Botika Zaharra zuhaitzia dago, eta, irudiaren erdian, Deustuko zubia, ekainaren 18ko gauean apurtua. Atzealdean ikusten den itsasontzia eta bere ondoan dauden eraikinak Euskalduna ontziolarenak ziren. Badirudi Deustuko irudian agertzen diren emakume eta gizonak ihes egiten ari direla gerratik, faxistek ekarritako gerra eta gerraoste krudel horretatik, euskaldun asko heriotzara, erbestera eta kartzelara eramane zituenetik. Argazkiaren egile ezezaguna, dirudienez, irudiaren ezkerrean dagoen Jaguar autoaren atzean ezkutatuta dago, tragediatik ihesi doazen familiak erretratatzeko.

ireki gure leihoa



GAUR8

